

PSICOLOGÍA / PSIKOLOGIA

Elvira FUENTES CALVO

**ATZERRIKO HIZKUNTZA GAITASUNA
HOBETZEKO SUNBILLAKO ESKOLAN
AURRERA ERAMATEKO
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

TFG/GBL 2020



Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

**Grado en Maestro de Educación
Primaria /**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Grado Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

ATZERRIKO HIZKUNTZA GAITASUNA
HOBETZEKO SUNBILLAKO ESKOLAN AURRERA
ERAMATEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Elvira FUENTES CALVO

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Elvira FUENTES CALVO

Izenburua / Título

Atzerriko hizkuntza gaitasuna hobetzeko Sunbillako eskolan aurrera eramateko proposamen didaktikoa

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Pablo SOTÉS RUIZ

Saila / Departamento

Osasun Zientzien Saila / Departamento de Ciencias de la Salud

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2020/2021

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluaren hiru artikuluetan ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituen arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduoko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituenak. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarri, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua/ak, "Oinarri psikologikoak: gizabanakoa eta gizarte ingurunea" irakasgaiak batez ere bidea eman dit psikologiaren oinarriak ezagutzeko, oroimena eta pentsamenduak gizakiongan nola funtzionatzen duen, bereiziki ikaskuntza gaitasunaren inguruan dauden ikuspuntuak ikasleek informazioa prozesatu ahal izateko ematen den prozesua ulertzen lagundu dit. Hizkuntzaren ikaskuntza prozesua hain zuzen ere.

Didaktika eta diziplinako modulua/ak bidea eman dit hizkuntza bat ikastean eta batez ere ama hizkuntza ez den beste bat ikasteko ematen den prozesua eta honek sortu ditzaken zailtasunak ulertu eta kudeatzeko. Hala nola proposamen didaktikoa sortzerako unean.

Halaber, Practicum moduluak atzerriko hizkuntza zein ikasleen ama hizkuntza bera ikastearen prozesua ezagutzen lagundu nau, ikasleekin suertatu daitezken zailtasunak eta hauei nola aurre egin. Ikasleek baliabide eta jarduera ezberdinen aurrean nola erantzuten zuten ikusteko aukera izan dut. Azken finean, Practicumak etorkizuneko irakasle lanaren prestakuntza bat da, oso aberasgarria dena.

Azkenik, aukerako modulua/ak oso lagungarriak izan zaizkit proposamen didaktikoa sortzerakoan, informazio eta komunikazio teknologiek egungo hezkuntza jaso duten garrantzia eta zein baliagarriak diren antzematen lagundu dit. Horretaz gain, hezkuntzan erabilgarriak diren hainbat baliabide eta aplikazio ezagutu ditut aukerako moduluei esker.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira "Introducción y justificación" eta "Conclusiones y cuestiones abiertas" atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Gradu amaierako lan honen helburua Lehen Hezkuntzako etapan zehar Malerrekako ikasleek duten ingeles maila aztertzea da. Horretarako euskara, gaztelania eta ingeleseko kanpo frogak eta hauen emaitzak aztertzen dira. Azkenik proposamen didaktiko bat aurkezten da. Kanpo frogez gain, irakasleek erantzundako galdetegi bat erabiltzen da hauen ikuspuntua ezagutzeko.

Lan hau aurrera eraman ahal izateko, autore ezberdinen ikerketa eta ikuspegiak erabiliko dira. Lanean zehar Cummins eta Jasone Cenoz-ek elkarmenpekotasuna, elebitasun eta eleaniztasun kontzeptuen inguruan eginiko ekarpenei erreferentzia egiten zaie lanean zehar.

Aurkezten den proposamen didaktikoa Sunbillako Ikastetxe Publikoko Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako ikasleekin lantzeko prestatua izan da. Hala ere Malerrekako bailarako edozein ikastetxetan aurrera eramaten ahal da.

Ikasleen kanpo frogak behatu ondoren eta proposamena aurkeztuta, lana egin bitartean lorturiko ondorioak azaltzen dira.

Hitz gakoak: elebitasuna; eleaniztasuna; hezkuntza; Cummins; hizkuntza.

Resumen

El objetivo de este trabajo es el de analizar el nivel de inglés obtenido en alumnos de Educación Primaria de la zona de Malerreka en Navarra. Para ello se presta atención a las pruebas externas de euskara, castellano e inglés. Por último, se presenta una propuesta didáctica. Además de las pruebas externas, se cuenta con un formulario respondido por los profesores de Malerreka con el fin de conocer su punto de vista.

Para llevar a cabo este trabajo se citan investigaciones e ideas de diferentes autores. A lo largo del trabajo se hace referencia a las aportaciones de Cummins y Jasone Cenoz sobre los conceptos de interdependencia, bilingüismo y plurilingüismo.

La propuesta didáctica presentada está creada para llevarse a cabo en el Colegio Público de Sunbilla, pudiendo llevarse a cabo en cualquier colegio del valle de Malerreka.

Después de analizar las pruebas externas y presentar la propuesta didáctica, se exponen las diferentes conclusiones obtenidas a lo largo del trabajo.

Palabras clave: bilingüismo; multilingüismo; educación; Cummins; idioma.

Abstract

The main objective of this end of degree project is to analyze the English level that students from Malerreka valley obtain during Primary Education. It is paid special attention to the external tests of Basque, Spanish and English languages. Finally it explains a didactic proposal. In addition to the external tests it is also used a questionnaire that English teachers from Malerreka valley had answered with the idea to get their perspectives.

To carry out this project, are quoted researches and ideas of different authors. During the project Cummins and Jasone Cenoz are referenced in regard to the contributions they have made about the concepts of interdependence, bilingualism and plurilingualism.

The didactic proposal portrayed in this project is created to develop it in the Public School of Sunbilla, in the first degree of Primary Education but it can also be developed in any of the schools of Malerreka valley.

After analyzing the external tests and introducing the didactic proposal are presented the conclusions obtained during this project.

Keywords: bilingualism; multilinguism; education; Cummins; language.

Aurkibidea

Sarrera eta justifikazioa

Introducción y justificación

1. Elebitasuna eta eleaniztasuna	4
1.1. Elebitasun eta eleaniztasun kontzeptuen definizioak	4
1.2. Marko legala estatu mailan	4
2. Eleaniztasuna eta hezkuntza	5
2.1. Irakaskuntza eleanitzaren definizioa eta oinarriak	5
2.2. Irakaskuntza eleanitza Nafarroan	7
2.3. Irakaskuntza eleanitza Espainia eta Europa mailan	10
3. Ingelesaren irakaskuntza	10
3.1. Gaian adituak diren autoreak	11
3.2. Ingelesa curriculumean	13
3.3. Atzerriko hizkuntzen irakaskuntza metodoak eta programak	14
4. Kanpo froga edo ebaluazio diagnostikoak	17
4.1. Gaitasuna atzerriko hizkuntzan (ingelese)	20
4.2. Ebaluazioa eta hobekuntza plana	20
5. Atal praktikoa	23
5.1. Helburua	23
5.2. Testuingurua eta justifikazioa	23
5.2.1. Malerrekako eskolak jarraitzen duen metodologia	24
5.2.2. Malerrekako eskoletako irizpide eta oinarri pedagogikoak	25
5.3. Hizkuntza gaitasun probak	26
5.3.1. Hizkuntza gaitasuna euskaraz	27
5.3.2. Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz	29
5.3.3. Hizkuntza gaitasuna ingelesez	30
5.4. Galdetegia	34
5.5. Proposamen didaktikoa	42
5.5.1. Helburuak	42
5.5.2. Edukiak	42
5.5.3. Metodologia	44
5.5.4. Oinarrizko gaitasunak	44
5.5.5. Saioen sekuentziarioa	45

Ondorio eta eztabaida irekiak

Conclusiones y cuestiones abiertas

Erreferentziak

Eranskinak

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Atzerriko hizkuntza bat edo gehiago ikasteak azken urteetan jaso duen garrantzia geroz eta handiagoa da. LOMCE legea ezarri zenetik atzerriko hizkuntzak ikatea eta egoera errealetan erabiltzeko gai izatea egungo hezkuntza sistemaren lehentasuna bihurtu da. Beste hainbat aspektutan bezala, egungo egoera sozio-ekonomikoak eragin handia dauka hezkuntza alorrean. Elebiduna izatea ohikoa da, ikasleak txikitatik eredu elebidun eta eleanitzetako eskoletan ikasten dute eta. Horrela beren ama hizkuntza ez diren beste hizkuntzak eskuratzen dituzte haien hezkuntza etapetan zehar.

Egun bizi garen mundu globalizatuan ingelesak mundu mailan garrantzia gehien jasotzen duen hizkuntza da eta horregatik hezkuntza sisteman geroz eta pisu handiagoa jaso du. Globalizazioa eta immigrazioa bezalako faktoreak eleaniztasuna garatzea sustatu dute, eskola eredu elebidun eta eleanitzak sortuz. Hogeigarren mendetik aurrera mundua globalizatzen hasi zen eta horrekin batera hainbat aspektutan eragin handia izan zuen, ekonomikoki aldaketa handiak eman ziren baina baita politika eta kulturen ere. Hezkuntzaren helburua umeei heziketa duin bat jasotzeaz gain, bizi garen munduan gizarteratzeko beharrezkoak diren gaitasun eta tresnak eskaintzea bada ere. Horregatik, egun ingelesa bezalako hain garrantzitsua den hizkuntza bat irakasteko beharra sortu zen.

Etorkizuneko irakasle bezala, Lehen Hezkuntzako etapan zehar ikasleek eskuratzen duten ingeles mailaren analisi bat egitea interesgarria da, horrekin batera zenbait hobekuntza proposatzeko asmoz. Metodologia berriei lan egiten da eta egun eskura dauden baliabideak anitzak dira, batez ere informazio eta komunikazio teknologia aldetik. Horregatik, lan honetan zehar ingelesak gure hezkuntza sisteman duen garrantzia bertan islatzen da.

Ingelesa derrigorrezkoa den ikasgai bat izan arren, orokorrean ikasleen ingeles gaitasunak Lehen Hezkuntzako etapan zehar ez dira behar bezala garatzen. Baliteke ikasgaiari ematen zaizkion orduak murriztegiak izatea ala bestelako arrazoiengatik izatea. Lanean zehar, ikasleek ikasgaiaren zein aspektutan huts egiten duten aztertuko da kanpo frogen bitartez eta ingeles irakasleek erantzundako galdetegi bat erabiliz. Gradu Amaierako Lan hau Lehen Hezkuntzako etapan zentratzen da eta batez ere ingelesa irakasgai eta hizkuntzan, hala ere euskara eta gaztelania hizkuntzen kanpo frogak kontuan hartuko dira.

Aipatu bezala, ikasleek ez dute lortzen Lehen Hezkuntzan zehar lortu beharko luketen ingeles maila. Haur Hezkuntzan atzerriko hizkuntza lantzen hasten den arren ez da nahikoa ikasleek ingelesean hizkuntza komunikazioa edo curriculumean deitzen den lehenengo gaitasuna erabat eskuratzeko. Horregatik lan honen nondik norakoa Malerrekako herrietako eskolen 2018/2019 urteko azken kanpo frogen emaitzak aztertzea izango da. Kanpo froga edo ebaluazio diagnostikoaren emaitzak aztertzeaz gain, hobekuntza planari ere erreparatuko zaio. Ikasleek huts egiten dituzten galderetan arazoa zein den ondorioztatzeko asmoz. Ikasleek dituzten zailtasun eta gabezi horiei aurre egiteko proposamen bat, unitate didaktiko bat sortzeko helburuaz. Aztertuko diren kanpo frogak Lehen Hezkuntzako laugarren mailako frogak dira, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentutik bidalitakoak, 2018/2019 urtekoak hain zuzen ere.

INTRODUCCIÓN Y JUSTIFICACIÓN

La importancia de conocer una o más lenguas extranjeras ha aumentado durante los últimos años. El aprendizaje de lenguas extranjeras y saber utilizarlas en una situación cotidiana son prioridad en el sistema educativo desde que se estableció la ley LOMCE.

Como en muchos otros aspectos, la situación socioeconómica tiene gran influencia en el ámbito de la educación. Hoy en día ser bilingüe es habitual, los alumnos y alumnas aprenden en colegios con programas bilingües y plurilingües. Así aprenden otros idiomas durante el proceso educativo, además de su lengua materna.

Debido a la globalización en la que vivimos, el inglés es el idioma que mayor importancia recibe y por eso es que también tiene un importante lugar en el sistema educativo. La globalización junto con la inmigración son factores que fomentan el desarrollo del plurilingüismo, desarrollando escuelas bilingües y multilingües. El fenómeno de globalización que comenzó durante el siglo XX conllevó grandes cambios económicos así como políticos y culturales. El objetivo de la educación además de que los niños y niñas reciban una educación digna también es la de proporcionarles los medios y habilidades necesarias para integrarse en la sociedad. Es por eso que surgió la necesidad de aprender un idioma tan importante como es el inglés.

Como futura profesora, resulta interesante conocer el nivel de inglés que se adquiere durante la etapa de Educación Primaria y para con ello conseguir una mejora. Hace años

que se trabaja con nuevas metodologías y hoy en día hay infinidad de recursos, sobre todo en cuanto a la tecnología de la información y la comunicación se refiere. Como se explica a lo largo de este trabajo los idiomas extranjeros tienen una gran importancia en nuestro sistema educativo.

Siendo el inglés una asignatura obligatoria, el nivel adquirido durante la etapa de Educación Primaria no se desarrolla lo suficiente. Una de las posibles razones podría ser que las horas que se le dedican a la asignatura sean escasas. A lo largo del trabajo, se analizarán los distintos aspectos en los que fallan los alumnos, para ello se utilizarán las pruebas externas y un cuestionario dirigido a profesores de inglés.

Este Trabajo de Fin de Grado se centra en la etapa de Educación Primaria y sobre todo en la asignatura del idioma inglés o lengua extranjera.

Como he explicado anteriormente, los alumnos y alumnas no desarrollan un nivel de inglés adecuado. Aunque este idioma esté presente desde la etapa de Educación Infantil, no es suficiente para que los niños y niñas desarrollen la primera competencia llamada competencia lingüística. Es por ello que la finalidad de este trabajo está basada en analizar las últimas pruebas externas realizadas en 2018/2019 del grupo de escuelas del valle de Malerreka. Además de analizar las pruebas externas o la evaluación diagnóstica también observaré el Plan de Mejora. Con la finalidad de entender cuáles son las razones por las que en algunas preguntas algunos alumnos y alumna están por debajo de la media de Navarra. Las pruebas externas analizadas son las últimas realizadas en el curso 2018/2019 en cuarto de Educación Primaria, enviadas por el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra.

1. ELEBITASUNA ETA ELEANIZTASUNA

1.1. Elebitasun eta eleaniztasun kontzeptuen definizioak

Weinreich (1968) hizkuntzalariaren arabera, elebidun hitzaren esanahia, bi hizkuntza modu txandakatuan erabiltzeko gai izatearen gaitasuna adierazten duen kontzeptua da.

Mackey-k (1970) adierazi zuen bezala, "Bilingualism is not a phenomenon of language; it is a characteristic of its use." Hau da, elebitasuna ez da hizkuntzaren fenomeno bat, honen erabileraren ezaugarri bat baizik.

Pertsona batek bi hizkuntzen erabilera eta hauen ezagutza maila modu berean menderatzen dituenean, orduan izango da gai egoeraren arabera modu arin batez bi hizkuntzetako bat erabiltzeko eta komunikatzeko, beti ere modu natural batez eginik.

Mundu eleanitz batean bizi gara. Eleaniztasuna kontzeptuak, pertsona bat edo gizarte talde batek bi hizkuntza baino gehiago erabilia komunikatzeko gaitasuna biltzen duen kontzeptua da.

Hizkuntza baten gramatika, hiztegia eta lexikoa eskuratzea ez da hizkuntza bat ikastea. Baizik eta hizkuntzaren marko soziala eta kulturala ulertzea, horretaz gain hizkuntza gaitasuna bereganatzea ere bada hizkuntza bat ikastea.

1.2. Marko legala estatu mailan

1990ko LOGSE legeak Espainiar estatuko hezkuntza sistema berregituratu zuen. Bertan Lehen Hezkuntzako etapatik aurrera atzerriko hizkuntza baten ikaskuntza jasotzen zen. Atzerriko hizkuntza ulertzea eta hizkuntza horretan mezu xumeak adierazteko gai izatea zuen helburu, bigarren ziklotik aurrerako ikasturteetan. Atzerriko hizkuntza irakasteko irakasleak izateaz gain, espezialistak izatea ere eskatzen zuen legeak.

2006 urtean LOE (2006/2) legea aldarrikatzen da, helburua ekitatea eta kalitatezko hezkuntza bermatzea du. Bertan oinarrizko gaitasunak aipatzen dira lehenengo aldiz. Curriculumari erreparatuz gero, lehenengo gaitasuna "Hizkuntza komunikazioa" da, gaitasun honek hizkuntza ofizialei zein atzerriko hizkuntzei erreferentzia egiten die. Atzerriko hizkuntzei dagokionez Lehen Hezkuntzarako ezartzen den helburua atzerriko hizkuntzaren komunikaziorako gaitasuna garatzea da, mezu xumeak ulertzeko eta baita hauek adierazteko ere.

LOMCE (2013), Espainiako estatuko hezkuntzaren kalitatea hobetzeko legea da. Lege honen hitzaurrean ondokoa ideia adierazten da, legeak eleaniztasuna defendatzen du, non ikasleek atzerriko hizkuntza batean era naturalez komunikatzeko gaitasuna sustatzen du. Globalizazio prozesua dela eta, atzerriko bigarren edo hirugarren hizkuntza bat menperatzea hezkuntzaren lehentasuna dela adierazten du LOMCE (2013) legeak.

Proposatuko den unitate didaktikoak LOMCE (2013) legeaz gain, Nafarroako Lehen Hezkuntzako curriculumean azaltzen diren ikasleak eskuratu beharreko gaitasunak kontuan izanik egituratua izan da. Proposamen osoan zehar garatzen diren gaitasunak ondokoak izanik: hizkuntza komunikazioa, gaitasun digitalak, ikasten ikastea, ekimena eta ekintzailtza.

- *Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua*

Hizkuntzalaritza eta pedagogia adituek sorturiko dokumentua da. Europar mailan erabiltzen da eta bertan ikasleek atzerriko hizkuntza bat ikasteko prozesuan daukaten ulermen maila, ahozketasuna eta idazteko gaitasunak neurtzen ditu sei maila ezberdinetan. Bertan ikasleak maila bakoitzean ikasi behar duena eta eskuratu behar dituen gaitasunak adierazten da. Dokumentu hau unitate didaktikoak, azterketak eta orokorrean materiala sortzerakoan oinarri edo abiapuntu amankomuna da Europar mailan.

2. ELEANIZASUNA ETA HEZKUNTZA

2.1. Irakaskuntza eleanitzaren definizioa eta oinarriak

Ikasleak bere hezkuntza prozesuan eskuratu beharreko ezagutzak ikasteko gutxienez ere hizkuntza edo gehiago erabiltzen duen irakaskuntza oro irakaskuntza eleanitza kontsideratzen da. “Ama hizkuntza, estatuko hizkuntza ofizial bat eta nazioarteko hizkuntza bat.” (UNESCO, en la Resolución 30 C/12).

Hizkuntza eta irakaskuntzari dagokionez *Conferencia Internacional de Educación*, hezkuntza ministroak biltzen dituen foruak hainbat aspektu goraipatzen ditu.

- Hezkuntza formalaren lehenengo etapetan ama hizkuntzaren irakaskuntza arrazoi pedagogiko, sozial eta kulturalengatik.

- Irakaskuntza eleanitza identitate kulturalen, mugikortasunaren eta elkarrizketen iraupena bermatzeko asmoarekin.
- Atzerriko hizkuntzen irakaskuntza komunitate eta nazioen arteko hezkuntza bezala.

Ikasleen gaitasun linguistikoak hainbat hizkuntzetan garatzea da irakaskuntza eleanitzaren helburua.

UNESCO, hezkuntza, zientzia eta kulturako Nazio Batuen erakundeak irakaskuntza elebidun edo eleanitza ama hizkuntzan oinarritzea adierazten du. Irakaskuntza eleanitza egokia izan dadin zenbait prestaketa lan egin behar dira.

Atzerriko hizkuntzaren didaktikan adituak direnen usteak bitan banatzen dira. Alde batetik, atzerriko hizkuntza irakastean ikasleen ama hizkuntzaren presentzia eta erabilera adierazten dutenak eta bestetik, ama hizkuntza beharrezkoa ez dela adierazten dutenak. Ikasleak ezagutzen dituen hizkuntzen arteko harremanak sortu behar ditu.

Beste edozein ikasgaietan bezala, arazoak suertatu daitezke ikasgelan. Atzerriko hizkuntza bati buruz ari garenean, zenbait komunikazio arazo aurreikusi daitezke irakaslea eta ikaslearen arteko komunikazioan. Horretaz gain, ikasgelek kultura askotariko ikasleak biltzen dituzte gaur egun eta kultura eta hizkuntzari dagokionez gatazkak sor daitezke. Beraz, hizkuntza bat irakasteaz gain mota ezberdinetako gatazkei aurre egiteko prest egon behar da irakaslea.

Vilaren (2010) arabera, irakaskuntza elebiduna hezkuntza proposamen bat da zeinak ikasleak hizkuntza berri bat ikastea bermatzen du. Ikasleak bere kabuz eta bizi den testuinguru sozialean ama hizkuntza bezain beste ikasi ez dezaken hizkuntza baten garapena sustatzea du helburu irakaskuntza elebidunak.

Ikasleak L2 hizkuntza erabiltzeko aukera izan dezan egoerak planteatu behar dira ikasgelan eta aldi berean L1 hizkuntzaren erabilera sustatzen da. Horretarako lau oinarri planteatzen ditu Vilak (2010):

1. Hizkuntza erabiltzen ikasten da hizkuntza bera. Hizkuntza bat erabiltzen jakiteak eta gaitasun linguistikoak garatzea elkarrekin loturik doazen kontzeptuak dira. Ikasleek hizkuntza komunikazio tresna bezala erabiltzean eskuratuko dituzte gaitasun linguistikoak.
2. Eskolaren zentzua eta jarrera linguistikoak. Ikasten ari diren hizkuntza berriari zentzua


eman behar zaio, L2 hizkuntza ikasteko egoera eta testuinguruak planteatu behar dira. Ikasleek ama hizkuntza eskolako testuinguruan errespetatua dela sentitu behar dute, horretarako behar izanez gero irakasleak ikasleen ama hizkuntza erabiliko du.

3. Ikasleriak L2 hizkuntza naturaltasunez eskuratzen du. Ama hizkuntza ez den beste hizkuntza bat ikasteko denbora behar da. Kontuan izan behar da ikasle batzuk L2 hizkuntza soilik eskolan erabiltzen dutela. Egoera egokiena ikasleek hizkuntza berria eskolaren testuinguruan eta baita etxean erabiltzea izango litzateke.

4. Hezkuntza elebidunak ikaslearen L1 hizkuntza garatzen du. Cummins-ek (1979) irakaskuntza elebidunak L1 eta L2 hizkuntzen elkarmenpekotasunaren teoria adierazi zuen. Hau da, L1 garatzen den heinean L2 hizkuntza garatzen da ere, hau da, bi noranzko dituen harremana dago.

2.2. Irakaskuntza eleanitza Nafarroan

Hizkuntzei dagokionez, gaztelania eta euskara dira Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza ofizialak, hala ere bi hizkuntza hauen erabileraren presentzia eta ezagutza erabat desberdina da. Nafarroako Estatistika Erakundearen (Nastat) 2018 urteko datuen arabera, gaztelania Nafarroako biztanleriaren ama hizkuntza ohikoena da, %84,6ko portzentajearekin eta euskara gutxiengo hizkuntza, %5,9aren ama hizkuntza izanik. Ingelesari dagokionez, gazteen artean %89,2ak atzerriko hizkuntzan ezagutzak ditu.



1. Irudia: Nafarroako biztanleriak atzerriko hizkuntzetan dituen ezagupenen portzentajeak (Nafarroako estatistika erakundea, 2018).

Aurreko grafikoan ingeles edo frantses atzerriko hizkuntzen ezagupena azaltzen da, hamabost urtetik gorako eta Nafarroako biztanleen datuak jasotzen ditu. Ikusten denez,

ingeleza hizkuntzako ezagutzak izatea frantsesaren gainetik nagusitzen da portzentaje askoz altuagoa izanik.


Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak, Nafarroako hizkuntza eremu edo zonaldeak zeintzuk ziren definitu zituen irizpide soziolinguistikoen arabera. Ondoren 9/2017 Foru Legearen bitartez Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk eguneratu izan ziren. Gaur egun hiru eremu edo zonalde ezberdinetan banatzen da eskualdea: eremu euskalduna edo gaztelaniaz *zona vascófona* deritzona, eremu mistoa eta azkenik eremu ez euskalduna edo gaztelaniaz *zona no vascófona*. Euskararen Foru Legeak edo gaztelaniaz Ley Foral del Vasuence (1986) legeak Nafarroako Foru Komunitatea hiru zonaldeetan banatzen du, euskararen erabilera eta ezagutza kontuan izanik.

Nafarroan lau hezkuntza eredu linguistiko eskaintzen dira, horietatik hiru A, B eta D eleanitzak dira, euskara, gaztelania eta ingeleza edo frantsesa hizkuntzak presentzia dute. Aurreko Foru Legearen araberrako eremuak kontuan izanik eremu euskaldunean A, B eta D ereduak baimentzen dira. Eremu mistoan A, B, D eta G ereduak. Beraz, eremu euskaldunean euskararen irakaskuntza derrigorrezkoa da baimentzen diren edozein eredutan matrikulaturik egonda.

- **A eredu:** Eredu honetan irakaskuntza guztia gaztelaniaz ematen da eta euskara soilik ikasgai bezala. Horrela izanik etapa guztietan. Ikasleen ama hizkuntza gaztelania da.
- **B eredu:** Irakaskuntza euskaraz ematen da eta gaztelania ikasgai bat izanik hezkuntza etaparen arabera gaztelania ikasgai bat edo gehiago irakasteko erabiliko da. Beraz ikasgaiak irakasteko bi hizkuntzak erabiltzen dira.
- **D eredu:** Eredu honetan irakaskuntza guztia euskaraz ematen da eta gaztelania soilik ikasgai bezala, etapa guztietan zehar. Orokorrean D ereduan matrikulaturik dauden ikasleen ama hizkuntza euskara da.
- **G eredu:** Eredu honetan ez dago euskararen inolako presentziarik. Irakasgaiak erabat gaztelaniaz ematen dira.

Nafarroak atzerriko hizkuntza irakasteari eskola-ordu gehien ematen dituen eremua da Espainiar estatuari dagokionez. Lehen Hezkuntzako etapan asteko bost ordu izanik ingeleza irakasteari.

Malerrekako eskoletako egoerari dagokionez, ikasleak D ereduan matrikulaturik egoteak murgiltze eredu bat suposatzen du, eremu euskaldunean aurkitzen baita bailara. Beraz, Malerrekako herriak euskaldunak dira, eskolaz kanpo eta biztanleen artean euskara nagusitzen da. Nafarroako beste hainbat zonaldeetan D eredu euskara mantentzeko eredu da, ikasleen egunerokotasunean eta eskolaz kanpoan erabiltzen duten hizkuntza gaztelania da eta. Ikasle hauen ama hizkuntza ez da eskolan erabiltzen den hizkuntza, hau da, umeei txikitatik etxean gaztelaniaz hitz egin diete eta eskolan berriz D ereduan matrikulatzen dituzte euskara hizkuntza mantentzeko asmoz.



2. Irdia: Nafarroako ikasleak ereduak. (Nafarroako Eskola Kontseilua, 2017-2018).

Aurreko grafikoan Nafarroan hizkuntza eredu bakoitzeko ikasle kopurua urteka azaltzen da. Grafikoa Nafarroako Eskola Kontseiluaren web orrialdean aurkitzen da.

Nafarroan Lehen Hezkuntzan gailentzen den eredu linguistikoa G eredu da, ikasleen %53,44ko portzentajearekin. Bildutako azkeneko datuak 2017-2018 ikasturtekoak direnez arren, grafikoan ikus daiteke zenbakiak ez direla asko aldatu azken urteetan. Aipagarria da Nafarroako Foru Komunitatea eleanitza izan arren euskara hizkuntza sustatzen duten ereduetan matrikulaturiko ikasle kopurua Lehen Hezkuntzan %50 baino baxuagoa dela.

Eredu linguistikoak eta hezkuntza eskaera kontuan izanik, hirugarren hizkuntza ikasteko beharra dago egungo gizartean. D ereduko kasuan bereziki, ikasleak euskara eta gaztelaniaz

gain ingelesa ikasteko beharra sortu zen. Nafarroa eta EAE-ko kasuz gain Espainiako beste hainbat komunitatetan ingelesa hirugarren hizkuntza bezala irakasten da. Euskara gutxiengo hizkuntza izanik, gaztelania da gailentzen den hizkuntza estatu mailan, horregatik Espainiako zenbait zonaldeetan ingelesa edo atzerriko hizkuntza hirugarren hizkuntza bezala hartzen da. Nafarroan eta EAE-n euskararekin gertatzen den bezala, Katalunian eta Galizian esaterako antzeko egoera ematen da.

2.3. Irakaskuntza eleanitza Espainia eta Europa mailan

Egun, atzerriko hizkuntzak ikasgai bezala irakasten dira Espainiako hezkuntza sisteman. Eskolako irakasgai bezala emateaz gain, CLIL bezalako metodologiaren erabilera ematen da non atzerriko hizkuntza komunikazio hizkuntza bezala erabiltzen den. Bestetik, eskolaz kanpoko jardueretan ere atzerriko hizkuntza landu daiteke.

Europako hezkuntza sistemari erreparatuz gero, herrialde gehienek atzerriko bigarren hizkuntza ikasteko aukera ematen dute. Hizkuntzak ikasteko beharra eta zein hizkuntza ikastea eskariari dagokio, Nafarroaren kasuan euskara eta gaztelania hizkuntzekin gertatzen den bezala, Europako herrialde batzuetan ematen den egoera antzekoa da. Finlandiarekin alderatu daiteke, finlandiera eta suediera herrialdearen hizkuntza ofizialak dira eta bi hizkuntza hauek derrigorrezkoak dira Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Nafarroako egoerarekin bat egiten du, Malerrekako eskoletan esaterako, euskara eta gaztelania derrigorrezkoak diren hizkuntzak izanik, ingelesa hirugarren hizkuntza da D ereduan. Eta berdin gertatzen da Finlandiako egoerarekin, herrialdeak bi hizkuntza ofizial izanik biak derrigorrezkoak dira eta horren ondorioz beste hizkuntza bat hirugarren hizkuntza izango zen.

3. INGELESAREN IRAKASKUNTZA

Ingelesa munduko hainbat herrialderen hizkuntza ofiziala izateaz gain, hizkuntzak mundu mailan daukan garrantzia nabaria da eta hori hezkuntzan islatzen da.

Azkeneko hamarkadetan izan diren hezkuntza erreformak kontuan hartuz, LOMCE hezkuntzaren kalitatea hobetzeko, curriculumean elebitasunak eta eleaniztasunak garrantzia jaso dute. Horretaz gain informazio eta komunikazio teknologia (IKT) berriak erabiltzeko aukerak ingelesa irakasteko moduan ere eragina izan du, baliabide eta material

berriekin lan egiteko aukera suposatuz, aukera anitz izanik.

Hirurogeita hamargarren hamarkadan Ley General de Educación (LGE) erreformak modu globalean atzerriko hizkuntzen derrigorrezko irakaskuntza arautu zuen. Hainbat iturri ezberdinetan ingelesaren agerpena berrogeita hamargarren hamarkadan kokatzen den arren, ingelesak ez zuen orain duen garrantzia jasotzen hasi berandu arte.

Ingelesa atzerriko hizkuntza bezala irakastea eman zen eskariari deritzo. EURYDICE-n (2001) azaltzen den bezala, hizkuntza eskaintzak aldatu egin ziren, eta horrekin batera ikasleen eskaria ere aldatu zen. Hirurogeita hamargarren hamarkada bitarte frantsesa zen hezkuntza sisteman eta bai globalki ere gailentzen zen hizkuntza. Geroztik, ingelesa ikasteko eskaria handitu zen eta orain ingelesa da atzerriko hizkuntza irakatsiena.

Eskaintzen diren atzerriko hizkuntzak, gehiengoan alemanera, frantsesa eta ingelesa dira, azkeneko hau gehien nabarmentzen dena izanik.

Zenbait hezkuntza etapetan atzerriko bigarren hizkuntza bat ikasteko aukera ematen da, gehienetan ez da Lehen Hezkuntzan izaten baizik eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

3.1. Gaian adituak diren autoreak

Jasone Cenoz-ek (2002) ikasleek eskuratzen duten ingeles maila betidanik baxua izan dela adierazten du. Ideia hori defendatzeko zenbait arrazoi ematen ditu, batetik ikasle euskaldunen ama hizkuntza euskara dela azaltzen du eta honek ingelesarekin inolako loturarik ez duela azaltzen du.

“No es lo mismo hablar una lengua germánica y aprender inglés, que tiene mucho más en común, que partir de otras lenguas, como el euskera o el castellano, que tienen más distancia.” (Cenoz, 2010)

Gainera, aspalditik gizartean ingeles maila hobetzeko erantzuna klase partikularrak izan dira. Horrek ere ondorio batzuk dituela adierazten du ere. Ikasleentzako eskolaz kanpoko aktibitate bat da beraz lan gehigarri bat suposatzen du. Gurasoei dagokionez, kostu ekonomiko bat da.

“Una de las causas es que fuera de la escuela hay muy poca exposición al inglés.” (Cenoz, 2010)


Gurasoen inplikazioari dagokionez, Arozena, Cenoz eta Gorter-ek *Journal of Immersion*

and Content-Based Language Education aldizkarian publikaturiko artikuluan ikerketa bati buruz ondokoa zioten, gurasoek haien umeengan eragin handia dute hizkuntzak ikasterako unean, honen aurrean bat egiten dute irakasle Frisiar zein euskaldunak.

Cummins-ek (1979), hizkuntzen arteko elkarmenpekotasunaren teoria aurkeztu zuen. Teoria honen bidez ama hizkuntzaren eta bigarren hizkuntza batek duten lotura aztertu zituen eta hau adierazi zuen: Ikaslearen testuinguruak ama hizkuntza mantentzeko estimuluak ematen badizkio, orduan testuinguru akademikoan bigarren hizkuntzaren garapen azkar bat emango da, ama hizkuntza kaltetu gabe. Baina ikasleak ama hizkuntza behar bezala garatu ez badu, bigarren hizkuntzaren agerpenak ama hizkuntzaren garapena kaltetu dezake eta era berean elebitasunaren garapenean eragingo du.

Ama hizkuntzaren eta bigarren hizkuntzaren elkarmenpekotasun printzipioa azaldu zuen Cummins-ek (1979). Printzipio honek ondorengoa adierazten du, hizkuntza jakin batean (Lx) ikasle batek eskuratzen diren gaitasunak beste hizkuntza batera (Ly) transferitu ahal direla. Elkarmenpekotasuna kontaktuan dauden hainbat hizkuntzen arteko lotura bezala ulertu daiteke. Gaitasunen arteko transferentzia L1etik L2ra eta alderantziz eman daiteke, hau da, bi noranzkoko da. Beraz ikasleak aurretik ikasi dituen hizkuntzen garapen egoki bat ezinbestekoa da hizkuntza berri baten garapenean.

Hipotesia azaltzeko Cummins-ek iceberg bikoitzaren eredua proposatu zuen:



3. Irudia: Cummins-en iceberg eredua (Netten eta Germain, 2002).

Aurreko eskema honetan ama hizkuntzak (L1) eta bigarren hizkuntzak (L2) edo atzerriko hizkuntzak menpekotasunik gabe funtzionatzeko dutela ikusten da, baina gainazalaren azpitik bi hizkuntzak kontaktuan daudela ikusten da. Gaitasunen arteko transferentzia adierazten du eskemak, hau da, ikasten diren bi hizkuntzen artean elkarmenpekotasun harreman bat ematen da.

Icebergean bi hizkuntzek bat egiten duten zonaldeari erreparatuz gero, “Competencia Subyacente Común” hipotesia adierazten da. Honek, erabiltzen diren bi hizkuntza edo gehiagok sistema kognitibo bera erabiltzen dute informazioa prozesatzeko.

“When a person owns two or more languages, there is one integrated source of thought.” (Baker, 1996, 147 orr.)

3.2. Ingelesa curriculumean

Egun bizi garen gizarte globalizatuan ezinbestekoa da komunikazio eta hizkuntza gaitasunak definitu ahal izateko irizpide batzuk ezartzea. Atzerriko hizkuntza bat menderatzea bezain den beharrezkoak dira honen ikaskuntza ziurtatzen duten irizpideak.

“Atzerriko hizkuntza batean, gutxienez, oinarrizko komunikazio gaitasuna bereganatzea, mezu errazak adierazi eta ulertzeko eta eguneroko egoeretan moldatzeko aukera emanen diena” Nafarroako Lehen Hezkuntzako curriculumean (24/2007 FORU DEKRETUA, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen duena.)

Curriculumean adierazten den bezala, atzerriko hizkuntza batean mezu errazak komunikatzen eta eguneroko egoeretan moldatzen jakin behar dute ikasleek haien Lehen Hezkuntza etapa bukatzerakoan. Gaitasun hau eskuratzen dela ziurtatzeko, curriculumean hezkuntza etapa eta ikasmaita bakoitzean landu eta barneratu behar diren edukiak azaltzen dira, lau bloke ezberdinetan.

Irakasgaia ondorengo bloke hauetan banatzen da ikasmaita guztietan zehar:

- 1. BLOKEA: Ahozko mezuak ulertzea.
- 2. BLOKEA: Mintzamina: adierazpena eta elkarreragina.
- 3. BLOKEA: Testu idatziak ulertzea.
- 4. BLOKEA: Testuak idaztea: adierazpena eta elkarreragina.

Atzerriko hizkuntzetako ikasketei dagokionez, arlo batzuk osorik edo zati batean atzerriko hizkuntzan irakasten ahal direla adierazten da.

Curriculumean atzerriko hizkuntza bat ikasteak egungo hezkuntza sisteman jasotzen duen garrantzia adierazten da. Hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna eskuratzeaz gain, hizkuntza beraren alderdi soziokulturalak ere biltzen ditu curriculumak. Funtzio komunikatiboa eta

sintaktikaz baino haratago doa, alderdi soziokultural eta soziolinguistikoak kontuan hartzen ditu ere.

3.3. Atzerriko hizkuntzen irakaskuntza metodoak eta programak

Historian zehar atzerriko hizkuntzak hezkuntzan jaso duten tokia aldatuz joan da eta horrekin batera irakaskuntza metodoak berriro egin dira, ikasleen eta gizartearen beharretara egokituz. Denborarekin hezkuntzarako metodoak aldatu diren bezala, eskura dauden baliabide eta aukerak ere aldatu egin dira. Egun edozein irakasleren eskura daude sarean aurki daitezken hainbat tresna eta honek irakaskuntza metodoen eguneratzea suposatzen du. Ikasleek hizkuntza gaitasuna garatu dezaten metodologia egoki baten beharra dago.

- *Grammar-Translation Method*: arau gramatikaletan eta itzulpenean oinarritzen den metodologia da hau. Irakaslea da irakas-ikaskuntza prozesu honen protagonista. Bere helburua ikasleari hizkuntzaren ezagupen linguistikoak irakastea eta ikasleak egiten dituen akatsak zuzentzea da. Ikasleak berriz, irakaslearen argibideak jarraitzen ditu, hizkuntzaren gramatika arauak eta hiztegia ikasten ditu. Hemeretzigarren mendean zehar Europar Batasuneko hainbat herrialdeetan zehar hedatu zen metodoa. Hasiera batean metodologia honen helburua itzulpengintza eta memorizazioa zen. Ama hizkuntza atzerriko hizkuntza irakasteko tresnatzat erabiltzen da.
- *Direct method*: hemeretzi eta hogeigarren mende hasieran hedatu zen metodologia. Izenak iradokitzen digun bezala metodo zuzena da, hau da, ikasleak atzerriko hizkuntzako hitz bat honek daukan esanahiarekin lotu behar du, hala nola, objektuak, ekintzak edota egoerak. Ama hizkuntza ez da irakasteko tresna bezala erabiltzen, honen erabilera saihestu egiten du. Ikaskuntza prozesuan zehar ikaslearen egunerokotasuneko egoeretan oinarritzen da. Ikaslea da protagonista eta batez ere ahozkotasunean eta ahoskeran zentratzen da irakaskuntza mota hau.
- *Project Based Learning*: izenak adierazten duen bezala, proiektuetan oinarritzen den irakaskuntza mota da hau. Ikaslea da irakaskuntza honen protagonista, bere kabuz ikasi behar du eta. Taldean lan egiteko edo modu kooperatiboan lan egiteko metodologia da. Ikasleek haiek sortzen dute proiektua eta horrek eskolan ikasitakoa

eta errealitatea lotzen ditu, ikasleen motibazioa handituz. Egun asko erabiltzen ari den metodologia da, ikasleek ikasitakoa errealitatera aplikatu dezaketelako.

- *Audio-Lingual method*: hogeigarren mendean sortu zen eta hizkuntzaren entzumenean eta errepikapenean oinarritzen den metodoa da. Honetan ere, irakaslea da protagonista. Izenak dioen bezala, entzumena eta mintzamina biltzen dituen irakaskuntza metodoa da. Beraz, ikasleei hiztegia edo egitura sintaktikoak irakasteko elkarrizketak edo errepikapenean oinarritzen diren ariketak erabiltzen dira.
- *Abestiak*: metodo tradizionalaz gain, atzerriko hizkuntzak irakasteko abestiak erabiltzea metodo bat da. Ikasleentzat atsegingarriagoa da abestiek bitartez ikatea, baita haien motibazioa pizteko ere. Mathew Peacock hizkuntzalariaren arabera bi modutan helarazten dira, fonetikoki eta ahoz. Gainera, ikasleen parte-hartzea oso handia da abestiak lantzeko unean. Abestien erabilpenak helburu desberdinetarako balio du, hiztegia ikatea, ahoskera lantzea, gramatika etab. Honen adibidea da egun ume zein helduak abestien bitartez ere ikasten dutela eta aspalditik gure gizartean daudela.
- *Jokoak*: hezkuntza alorrean geroz eta gehiago erabiltzen dira jokoak. Abestiak bezala, metodo tradizioaletatik aldentzen diren metodoak dira, ikasleentzat motibagarriak eta interesgarriak direnak. Hizkuntzaren alderi desberdinak lantzeko balio dute, egitura gramatikalak edo hiztegia esate baterako baita memoria eta gaitasun soziala lantzeko ere. Garrantzitsua da jokoa egokia izatea, hau da, landuko diren edukiekin bat egitea eta helburu zehatz bat izatea.
- *Content and Language Integrated Learning*: CLIL deritzon metodologia, gaztelaniaz AICLE deritzona. Europan sortu zen, 1994. urtean. Irakaskuntza honen helburua bikoitza da. Ikasleek atzerriko hizkuntza bat ikasiko dute eta modu natural batez erabiltzea lortuko dute. Ikasleek ikasiko duten hizkuntza horretaz gain beste ikasgaiak irakasteko tresna bezala erabiliko da. Hau da, hizkuntzak ez diren beste ikasgaiak hala nola, matematikak, natur zientziak edo bestelakoak atzerriko hizkuntzan burutuz. Modu honetan ikasleak ikasgai bateko edukiak ikasteaz gain atzerriko hizkuntzaren eduki linguistikoak bereganatuko ditu ere. Beraz ikasleak atzerriko hizkuntza ez den beste ikasgai batekin hizkuntza bera ikasiko du ere.

Metodo ezberdin asko egon arren, ez dago egokia den metodo bakarra, guztien helburua edo nondik norakoa ikasleak ikasiko duten hizkuntza horretan egoera errealetan arintasunez komunikatzeko gai izatea da, metodologia bakoitzak ildo desberdin bat jarraitzen duen arren.

- *Ingelesa Ikasteko Programa*

Egun, Nafarroan eskaintzen diren eredu linguistikoez gain, bestelako hezkuntza programak daude zeinak alemana, frantsesa edo ingelesa komunikazio hizkuntza moduan erabiltzen diren.

Ingelesaren kasuan Ingelesa Ikasteko Programa (IIP edo PAI, *Programa de Aprendizaje en Inglés*), atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak dira eta ikasgai batzuk ingeleraz irakastea suposatzen du, atzerriko hizkuntza edukien irakaskuntza tresna izanik. 147/2016 Foru Aginduak atzerriko hizkuntzak irakasteko programak arautzen ditu. Foru agindu honek atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak arautu eta ikastetxeak mota honetako programak abiarazteko baimena ematen die.

Foru Aginduan agertzen den bezala, *“Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak eleaniztasunaren sustapena nabarmentzen du helburu gisa eta eragin bereziko eremu gisa.”* (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2017).

Programa hauen helburua ikasgai bat edo batzuk ingelesez irakastea datza. Curriculumak atzerriko hizkuntzetan emateko ordutegi banaketa ondokoa izango da. Lehenengo Hezkuntzan, Nafarroan eta D ereduan matrikulaturik dauden ikasleen ordutegiko 6 eta 9 saio artean atzerriko hizkuntzan izango dira. Aldiz, A edo G ereduan matrikulaturik dauden ikasleen kasuan 8 eta 12 saio artean atzerriko hizkuntzan emango dira Lehen Hezkuntzako etapa osoan zehar.

IPP ereduak bi kontzeptutan oinarritzen da: hizkuntzen trataera bateratua eta hizkuntza eta edukien ikaskuntza bateratua.

- *Hizkuntzen trataera bateratua*: Ikasleen hizkuntza konpetentzia hobetzeko helburua du. Eleaniztasunaren ardatzetik abiatuz, eskola batean dauden hizkuntza guztien elkarlanean aritzea beharrezkoa da. Hau da, hizkuntza irakasle guztien elkarlana da, ikasleek hizkuntza batean ikasi dutena beste hizkuntza batean erabili ahal izateko. Laburbilduz, eskola bateko hizkuntza

programazio guztiak oinarri eta metodologia berdina jarraitzea suposatzen du.

- *Edukien ikaskuntza bateratua*: Hizkuntzak edukien bitartez eta edukiak hizkuntzaren bitartez ikasteari deritzo. Hau da, ikasleak eduki batzuen bitartez hizkuntza bera ikasten du aldi berean eta berdin gertatzen da edukiekin.

4. KANPO FROGA EDO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAK

LOMCE legeak ezartzen duen bezala, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko asmoz Lehen Hezkuntzako ikasleek kanpo froga batzuk egin behar dituzte. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak prestatzen dituen frogak dira eta ez dute inolako ondorio akademikorik ikasleengan. Froga hauek ikasle guztiek egiten dituzte, ikasleen oinarrizko gaitasunak aztertzeko eta hobekuntzak egin ahal izateko helburuz. Ebaluazio diagnostikoak hezkuntza sistema osoa aztertzea du helburu, kanpoko ebaluazioa da, adituek sorturikoa. Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzuak irakasle espezialistekin diseinatzen dituzte frogak. Nafarroako ikastetxe guztietan egiten dira zentro publiko zein itunduetan.

Kanpo froga hauek Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiak egiten dituzte. Probak ez dira ikasturte bukaeran egiten, baizik eta etapa bukatu baino lehen, emaitzak aztertu ondoren beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izateko, kasu honetan Lehen Hezkuntzako 4. mailan.

Gaitasunen kontzeptuaren definizio ugari egon arren ondoko definizioa proposatzen da:

“Gaitasuna ezagutza erabiltzeko ahalmena da, ikasleen bizitza pertsonal, familiar, akademiko nahiz sozialeko egoera bat abileziaz konpontzeko, hainbat prozesu kognitibo eta sozioafektiboren ezarpenaren bidez” (2012, Ebaluazio Diagnostikoaren esparru teorikoa).

Aurretik azaldu bezala, lan honetan zehar Ingelesaren hizkuntza gaitasuna baloratu eta aztertuko da, beraz atzerriko hizkuntzaren kanpo frogan zentratzen da lana. Hala ere D ereduan ematen diren hiru hizkuntzen frogak behatuko dira, euskara, gaztelania eta ingelesa, ikasleen komunikazio gaitasunak hiru hizkuntzetan nolakoak diren ulertzeko.

“El objetivo de esta evaluación es la mejora del aprendizaje del alumno o alumna, de las medidas de gestión de los centros y de las políticas de las Administraciones.” LOMCE

(8/2013, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko legea).

LOMCE legearen hitzaurrean adierazten den bezala, kanpo froga edo ebaluazio diagnostiko hauen helburua ikasleen ikaskuntza prozesuan hobekuntzak egitea da, hala nola ikastetxeen eta administrazioaren kudeaketa hobetzeko neurriak ezagutzea.

Laburbilduz, kanpo frogak balio hezigarria dute. Hezkuntza zentroetan programazioak eta hobekuntza plana eguneratzeko erabili ohi dira. Ikasleria hobeto ezagutzeko aukera dira ere. Kanpo froga honen bitartez ikasleak curriculumean azaltzen diren oinarrizko gaitasunak lortu dituen neurtuko da. Froga honen bitartez ikasleek eskolan ikasitakoa bertan aplikatzeko gai direla erakutsi behar dute. Honek ez du esan nahi ikasleek ezagutzak eskuratu dituen ala ez, baizik eta ea ikasleak eskolan eskuratu dituen ezagutzak beste egoera berri batean aplikatzeko gai den.

Froga hauek fidagarriak eta esanguratsuak izan daitezzen ikastetxe, irakasle eta ikasleek ez dituzte frogak ikusten hauek egin arte.

“Estas pruebas tendrán un carácter formativo y de diagnóstico. Por un lado deben servir para garantizar que todos los alumnos y alumnas alcancen los niveles de aprendizaje adecuados para el normal desenvolvimiento de la vida personal y profesional conforme el título pretendido, y además deben permitir orientar a los alumnos y alumnas en sus decisiones escolares de acuerdo con los conocimientos y competencias que realmente posean. Por otro lado, estas pruebas normalizan los estándares de titulación en toda España, indicando de forma clara al conjunto de la comunidad educativa cuáles son los niveles de exigencia requeridos e introduciendo elementos de certeza, objetividad y comparabilidad de resultados.” LOMCE (8/2013, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko legea).

Aurretik azaldu bezala, kanpo froga hauek ez dute inolako eraginik akademikorik izango ikasleen espedienteetan. Alde batetik, ikasleria guztiak ikaskuntza maila egokia lortu dutela ziurtatzeko erabiltzen dira, gainera ikasleak haien hezkuntza erabakietan orientatzeko helburua du. Bestetik, froga hauek estatu mailan titulazioen estandarrak arautzen ere balio dute. Hau da, Espainiar estatuan zein exigentzia maila eskatzen den hezkuntza komunitatean.

Froga hauek Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentutik igortzen dituzte Nafarroako hezkuntza zentroetara. Lan honetan aztertuko diren ebaluazio diagnostikoak

Lehen Hezkuntzako laugarren mailakoak dira. Hizkuntza gaitasuna ingelesez neurtzen duen froga hau hiru zati ezberdinetan banatzen da. Entzumena, irakurketa eta idazmena atalak jasotzen ditu. Ikasleak ordu bat du azterketa osoa egiteko eta arauak ezartzen duten bezala irakaslearen inolako laguntzarik jaso gabe egin beharko du.

Frogari dagokionez, bai entzumenezko atala eta bai irakurmenaren atala ere test moduan azaltzen dira galderak, beraz ikasleak erantzun zuzena aukeratu beharko du ezer idatzi gabe. Frogaren lehenengo orrialdea ikasleek haien datuekin beteko dute, izen-abizenak, eskola, taldea, herria edo hiria eta data. Bigarren orrialdean berriz, azterketa moduko honen nondik norakoak azaltzen dira. Azterketak hiru atal dituela adierazten da, baita galderei nola erantzun behar zaien. Frogaren zati bakoitza nolakoa izango den laburki azaltzen da eta atal guztiak osatzeko ordu bateko denbora izango dutela zehazten da.

Froga hauen ebaluazioa egiteko hiru neurketa-tresna erabiltzen dira:

- *Proba idatziak:*
 - Irakurtzeko gaitasun-proba Euskaraz (D eredu)
 - Testu idatziak ekoizteko gaitasun-proba.
 - Matematikarako gaitasun-proba.
 - Atzerriko hizkuntzarako gaitasun-proba (ingelese).
- *Ikasleen eta gurasoen galdera-sortak:*
 - Irakurtzeko ohiturak eta jarrerak.
 - Eskolako lanerako ohiturak eta jarrerak.
 - Bizikidetzako ohiturak eta jarrerak.
- *Irakasleentzako behaketa-eskala:*
 - Irakurtzeko ohiturak eta jarrerak.
 - Eskolako lanerako ohiturak eta jarrerak.
 - Bizikidetzako ohiturak eta jarrerak.

Frogen emaitzak lau maila ezberdinetan adierazten dira: 1.maila, 2.maila, 3.maila eta 3+.maila. Zuzenketei dagokionez bi irakasle ezberdinek zuzentzen dituzte, tutoreak

irakurtzeko gaitasuna, testu idatziak ekoizteko gaitasuna eta matematikarako gaitasuna zuzenduko ditu. Ingeleseko proba berriz, ingeleseko irakasleak.

4.1. Gaitasuna atzerriko hizkuntzan (ingelese)

- *Ahozko eta idatzizko ulermena*

Testuen ulermenari dagokionez, euskara edo gaztelaniaz erabiltzen diren testuak baino sinpleagoak dira eduki eta hiztegiaren mailari dagokionez. Ingeleseko froga honetan test moduko jarduerak dira eta euskara eta gaztelaniaz egiten dituzten frogan aldiz mota ezberdinetako galderak daude, hala nola, hutsuneak betetzekoak, egia ala gezurra, gezien bidez lotzekoak etab.

- *Ingeleseko testu laburra ekoiztea*

Hainbat alderdi kontuan hartuko dira testuaren koherentzia neurtzeko asmoz. Ekoizpenak zentzu globala izan behar du, eskatzen den testu motaren eredu aintzat hartu den behatuko da eta baita nola antolatzen den ere.

Testuaren kohesioa neurtzeko lokailuen eta puntuazioaren erabilera egokia den kontuan hartuko da, aditz-denborak egoki erabiltzen diren eta erreferenteak erabiltzen dituen behatuko da. Horretaz gain, hizkuntza arauak ere kontuan hartuko dira:

- Aurkezpena, testuaren garbitasuna eta espazioak.
- Letraren irakurgarritasuna.
- Ortografia.
- Sintaxia.

4.2. Ebaluazioa eta Hobekuntza Plana

Lan honetan aztertuko diren kanpo frogak Malerrekako eskoletako emaitzak direnez, eskola talde honek dituen lau ebaluazio motak azalduko dira: hasierako ebaluazioa, etengabeko ebaluaketa, kanpo ebaluazioa eta barne ebaluazioa.

- *Hasierako ebaluazioa*

Hasierako ebaluazioari dagokionez, ikasturtea hastean irailean, hasierako ebaluazioa egingen zaie beraien ezagupen maila zehaztu eta horrela ikasturtearen planifikaziorako behar den

informazioa jasotzeko. Eskoletako irakasle guztien eskura ebaluaziorako ereduak proposatzen dira.

- *Etengabeko ebaluazioa*

Etengabeko ebaluazioan ikasleak ebaluatzeko tresna eguneroko behaketa izango da bertako eskolan. Horrela etenik gabeko eta eguneroko ebaluazioa bideratzen da. Lehen Hezkuntzan, Matematika, Hizkuntza, Gaztelania, Gizarte Zientzietan, Natur Zientzietan eta Ingeleseko ikasgaietan hiru hilabeteko bakoitzean zehar ezagutza frogak edo azterketak egingen zaizkie ikasle guztiei.

- *Kanpo ebaluazioa*

Ikastetxeek banakako ebaluazio bat egingen diete Lehen Hezkuntzako 3. 4. eta 6. mailako ikasle guztiei. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko Ebaluazio Atalak koordinatuko du ebaluazio hori. Hizkuntza komunikazioaren trebetasuna, trebetasun matematikoa 3. 4. eta 6. mailan eta Zientzia eta Teknologiako trebetasuna 6. mailan ebaluatzeko kanpo frogak egingen dira. Huetatik soilik 4. mailakoa izango da derrigorrezkoa.

- *Barne ebaluazioa*

Lehen Hezkuntzan, curriculum berriak zehazten dituen estandarrak kontuan hartuz lan taldeetan prestatutako kurtso bukaerako frogak pasatzen dira 1. 2. eta 5. ikasmailatan. 3. 4. eta 6. mailako ikasleei berriz, kanpo frogak pasatzen zaizkie. Barne ebaluaketa hauetan hainbat alderdi kontuan hartzen dira.


- Irakurmenaren ulermena, euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz.
- Testu idatzien ekoizpena euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz.
- Matematikako oinarrizko ezagupenak.

Barne ebaluazio hau aurrera eramateko hainbat tresnaz baliatzen dira. Lehenik, Hezkuntza Departamenduak proposaturiko froga ereduak LOMCE-n sartutako ikasmailatan. Bestetik, aurreko ikasturteetan egindako kanpo frogen ereduak ere eskura dituzte eskolako irakasle guztiek, Departamenduko webgunean. Froga hauen bidez gaztelania, matematika, ingelesa eta euskara maila neurtu daiteke. Azkenik, EIBZko (Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa) webgunean Hizkuntza Gaitasunak Ebaluatzeko Probak (HGEP) eskura dituzte. Izenak iradokitzen duen bezala, euskara gaitasunak neurtzen dira.

Kanpo ebaluazioen helburua ikasleek eskuratu duten gaitasun maila ezagutzeaz gain, hobekuntzak lortzeko eta plangintzak lantzeko erabiltzen dira eta hauek Hobekuntza Planean islatzen dira.

- *Hobekuntza Plana*

Hobekuntza Planean hezkuntza errendimendua hobetzeko hartu beharreko neurrien multzoa biltzen da, irakaskuntza-ikaskuntzaren kalitatea hobetzeko asmoz. Ebaluazioa hobekuntza planaren ezinbesteko elementua da, hobetu nahi diren aspektuen berri ematen du. Zer hobetu nahi den eta zergatik hobetu nahi den ezagutzen da ebaluazioen bidez.



4. Irudia: Hobekuntza planaren nondik norakoa. (Hezkuntza Ikuskaritzako Koadernoak, 2012).

5. ATAL PRAKTIKOA

Behaketa hau aurrera eraman ahal izateko Lehen Hezkuntzako etaparen laugarren mailan hiru hizkuntzetan egiten diren kanpo frogak eta hauen emaitzak aztertzen dira. Aurretik aipatu bezala, frogen emaitzak Malerrekako eskoletako taldekoak dira. Froga eta emaitzez gain, eskola talde honetako ingeles irakasle guztiek galdetegi labur bat erantzun dute, lanean egiten den behaketaren informazio osagarria eskuratzeko asmoz. Guztira bost irakasle izanik, ingeles irakasgaiari buruzko zenbait galdera erantzun dituzte.

5.1. Helburua

Gradu Amaierako Lan honetarako Nafarroako Foru Komunitateko herri eskola talde baten, Malerrekako eskola taldearen 2018/2019 urteko ingeleseko kanpo froga edo ebaluazio diagnostikoan lorturiko emaitzak aztertu dira ikasleen gabeziak zeintzuk diren ezagutzeko asmoz. Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentutik bideratzen dituzten ingelesa, gaztelania eta euskara hizkuntzetako frogen emaitzak behatu dira eskola hauetako ikasle eleanitzek zein huts egiten dituzten ezagutzeko asmoz. Helburu nagusia hori izanik, bertatik abiatuz ikasleen ingelesaren hizkuntza gaitasunak hobetzeko helburuaz proposamen didaktiko bat sortu da. Bertan kanpo frogetan behatu diren hezkuntza beharrei erantzuteko ideia eta jarduera desberdinak proposatzen dira, beti ere ikasleen hezkuntza beharrak kontuan izanik.

5.2. Testuinguru eta justifikazioa

Lanarekin aurrera jarraitu baino lehen, aztertuko ditudan ebaluazio diagnostiko edo kanpo frogen emaitzak lorturiko eskolak zer nolako testuinguruan kokatzen diren azalduko dut.

Eskolen testuinguruari dagokionez, Malerreka Nafarroaren ipar-mendebaldean aurkitzen da. Legasa, Narbarte, Ituren, Saldias, Beintza-Labaien eta Sunbilla herrietako eskolak osatzen dute. Kilometro gutxitara kokaturik dagoen Doneztebe herria da sei herrixka hauetako eta eskualdeko erreferentzia zerbitzu ezberdinetarako: osasun zentroa, postetxea, banketxeak etab.

Ekonomiaren ardatza etxeko nekazaritza eta abeltzaintza eta inguru hurbilean kokaturiko industriak dira (Leitza, Bera, Legasa eta Lesaka), eta gaur egun jasaten ari garen krisi ekonomikoa gehien nabaritzen den eremuetako bat da. Biztanleriaren gehiengoa

euskalduna da eta eguneroko harremanetan herri eta familia mailan erabiltzen den hizkuntza euskara da.

Atzerritarren jendetza kopurua ez da esanguratsua herri txikietan, Donezteben, eskualdeko herri nagusian, atzerritar kopurua zertxobait handiagoa da.

Bertako herri eskolak, testuinguru horren irudia dira eta irakaskuntza euskara hutsean, “D” ereduan, eskaintzen dute, ingelesa eta gaztelania ikasgai moduan irakasten dutelarik. Sei herriak eremu euskaldunean kokaturik daude Nafarroako Euskararen Legearen arabera.

Azken urtetan eskualdean hazkunde demografikoa nabaritzen hasia bada ere, Doneztebe da benetan gehien hazten ari den herria. Izan ere, herri txikietako gazte batzuk zerbitzu hobeagoak bilatze arren Donezteben kokatzen dute beren bizitokia eta horrek balizko arriskua dakar: herri txikiak eta beren eskolak hustuz joatea.

Talde hau osatzen duten sei ikastetxeek beren nortasun propioa izan arren, guztiak testuinguru berdinean kokaturik daude: ipar-mendebaleko Nafarroan, XXI. mendeko landa eremu euskaldunean eta ildo berdinean dabilta lanean.

Malerrekako eskola guztiak testuinguru berean kokatzen direnez guztiak amankomunean dituzten ezaugarri nabarmenenak dira.

- Eskola publikoa eta herrian dagoen bakarra.
- Euskalduna, eskolak D eredukoak dira.
- Talde txikiak.
- Adin desberdinetako haurrak gela berean.
- Elkarreragina eta kooperazioa era naturalean sustatzen dira.
- Herriaren nortasuna eta kultura oinarritutako heziketa bultzatzen duena.
- Landa eremukoa: naturarekin harreman zuzena.
- Elkar ezagutzeko eta aintzat hartzeko aukera ematen duen lekua.
- Herriarren topagunea.
- Irakasle eta gurasoen arteko harreman estua eta inplikazio zuzena.

5.2.1. Malerrekako eskolak jarraitzen duten metodologia

Malerrekako eskola taldea osatzen duten sei eskolek ildo berean lan egiten dute, Hezkuntza Proiektua, Bizikidetza Plana eta bestelako agiri eta dokumentuak amankomunean izanik. Herri eskola hauek konstruktibismoa oinarri duen metodologia mota jarraitzen dute.

Ikasleak aurre ezagupenetatik abiatzen dira eta ezagutza esanguratsuak eraikitzen dituzte une oro. Irakasleen lana berriz, aldazio edo ingelesez *scaffolding* deritzona da, ikasleari ezagutzak eraikitzeko beharrezkoak dituen tresnak bideratzea. Beti ere, bilakaera hurbileko eremuan edo gaztelaniaz ZDP (*Zona de Desarrollo Próximo*) delakoa.

5.2.2. Malerrekako eskoletako irizpide eta oinarri psikopedagogikoak

Malerrekako herrietako eskola komunitateak hezkuntza helburu eta balore batzuk lehenesten ditu:

Euskara eta euskal kultura; eleaniztasuna: Ikastetxe euskaldunak dira, “D eremuan” oinarrituak, hau da, euskara da komunikazio eta hezkuntza hizkuntza. Euskaraz irakasten dira gai guztiak eta euskal kulturaren ezagutza eta begirunea dituzte helburu.

- Ikasle euskaldunak alfabetatzen dituzte.
- Ahaleginak egingo dituzte ume erdaldunak euskalduntzen. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako etapan zehar laguntza eta errefortzuak erabiliz.
- Euskararen erabilera bultzatuko dute harremanetan, eskolan zein kanpoan.

Eleaniztasunari dagokionez, curriculumari erreparatuz gero, hizkuntza desberdinak egoteak geroz eta beharrezkoagoa da eta horrek koordinazioa eskatzen du. Hizkuntzak ez dira modu independentean garatzen, gaitasun linguistikoaren bitartez hizkuntzen arteko konparazioa eta eraginak suertatzen dira. Horregatik Malerrekako eskolak euskara, gaztelania eta ingelesa hizkuntzetan murgiltzeko jarduera eta programazioak sortzen dituzte.

Hezkidetzak: Malerrekako eskolak hezkidetzarantz bideratzen dute hezkuntza, berdintasunerantz.

- Neska eta mutilen rola bereiz ez daitezen lan egingo da.
- Talde-lana sustatuko da.
- Irakasleen parte-hartzea eta hauen hausnartzera bultzatuko dira.

Demokratikoa eta parte-hartzailea: Ikastetxe parte-hartzaile eta demokratikoak dira Malerrekako eskolak. Komunitateko edozein partaideren askatasuna bermatzen duen eskola. Akonfesionala eta ideologia zehatzi gabekoa.

- Norberaren askatasuna, libre pentsatzeko eta adierazteko askatasuna.
- Elkarren arteko lana bultzatzen duena.

Inklusioa: Ikasleen hezkuntza beharrei erantzuten dien eta aniztasuna kontuan hartzen duen ikastetxeak dira.

- Ikasleen artean irakaskuntza ikaskuntza prozesuaren garapena bultzatuko da.
- Desberdintasuna aldarrikatzen da.
- Hezkuntza beharrak dituzten ikasleei erantzuteko baliabideak antolatuko dira.

Autonomia eta elkarlana: Umeak gizartean era naturalen egokitzeko helburuaz ikasleen adimen eta gizarte-garapena lantzen dira. Hortaz txikitatik haien autonomiaren garapenean, heziketan eta gaitasunean garapenean zentratzen da.

- Ikaslearen autonomia bultzatzen da, pertsona garapena kontuan izanik.
- Ikasleengan behaketa eta kritikarako gaitasuna, lan intelektualerako ohiturak, arreta eta antolamendua sustatuko du hezkuntza prozesuak.
- Elkarbizitzarako arauak eta ohiturak sustatuko dira, ikaslea pertsona bezala garatzeko helburuaz.
- Ikasleei oinarritzko kultura eskainiko zaie.

Formakuntza: Malerrekako eskoletako irakasle taldeari dagokionez, etengabeko prestakuntzak dira oinarri.

- Ikasleari eta honen familiari informazioa eta laguntza eskainiko zaie.
- Talde lana eta ikastetxeko kide ezberdinen koordinaketa sustatzen da.

5.3. Hizkuntza gaitasun probak

Euskara eta gaztelaniaren hizkuntza gaitasuna neurtzen dituzten frogak bi atal dituzte, lehengoa irakurriaren ulermenarena eta bigarrena idazmenarena. Ingelesekoan bezala, lehenengo orrian ikaslearen datuak idatzi behar dira eta bigarren orrian zein motatako galderak aurkituko dituzten eta nola erantzun azaltzen da. Kasu honetan ere ikasleek ordu bat izango dute proba egiteko. Testuei erreparatuz gero begi bistan dago ingelesekoak baino luzeagoak direla. Guztira, idazmenaren jarduera barne ingeleseko probak 25 galdera ditu, euskarakoak 28 eta gaztelaniakoak 21.


Aurretik azaldu dudana bezala, Gradu Amaierako Lan honen zeregina Malerrekako eskolak 2018-2019 ikasturtean buruturiko kanpo frogak aztertzea izango da. Kasu honetan

hizkuntza gaitasuna ingelesez neurtzen duen kanpo froga aztertuko dut. Malerrekako eskolen emaitzak Nafarroako emaitzekin batera azaltzen diren grafiko batetik abiatuz.

Lehenik eta behin ikasleek huts egin dituzten jarduera edo galderetara bideratuko dut analisia. Hala ere, kanpo frogak biltzen dituen galdera eta jarduera guztiak behatuko ditut. Nafarroako Gobernutik eskoletara bideratzen den ebaluazio diagnostikoa edo kanpo froga hau eskuratu ahal izateko, Lehen Hezkuntzako Irakasleen Graduak laugarren eta azken urte honetan burutu ditudan Eskola Praktikak 3 irakasgaiko eskolarekin kontaktuan jarri naiz. Eskolako zuzendaritza taldearen onarpenaz, Gradu Amaierako Lana egiteko dokumentu hauek partekatu dizkizate.

5.3.1. Hizkuntza gaitasuna euskaraz

- Probaren analisia



5. Irudia: Nafarroako eta Malerrekako 4. mailako euskarako ebaluazio diagnostikoaren emaitzak (2018/2019)

Grafiko honetan ikusten den bezala, Nafarroako eta Malerrekako eskolek ebaluazio diagnostikoan lorturiko emaitzan azaltzen dira. Hizkuntza gaitasuna Ingelesez adierazten digu galderaz-galdera eskuratu diren emaitzekin. Ardatz bertikalean zuzen erantzundako galderen ehunekoa adierazten dira eta ardatz horizontalean berriz, kanpo froga edo ebaluazio diagnostikoaren galderaren zenbakia adierazten da.

Grafikoaren legendan azaltzen den bezala, Nafarroako emaitzak barra diagrama moduak irudikaturik daude gris koloreaz eta Malerrekako eskolen emaitzak triangelu forma duen sinbolo baten bitartez.

Euskarako probako irakurmenaren ulermena bi testutan banatzen da, "Indio ibiltaria" eta "Kakaotik txokolatera" izenburua dutenak. "Indio ibiltaria" testuaren inguruan 16 galdera

egin dira eta “Kakaotik txokolatera” testuaren inguruan 12 galdera. Guztira dauden 28 galderetatik, 26 galderak puntu 1 balio dute eta 2 galderek 2 puntuko balioa. Beraz, gehieneko puntuazioa 30ekoa da. Galdera bakoitzaren zailtasun maila ezberdina izan da, zenbait galderetan ikasleen ehuneko portzentaje handi batek zuzen erantzunda (lehenengo galdera adibidez %94,09ak ongi erantzun du) eta beste batzuk zailak suertatu zaizkie (23. galdera %19,14ak ongi erantzun du).

Ekoizpen idatziaren atalean, ematen den ideia batetik abiatuz istorio bat asmatu behar dute. Idazmenean ondoko atalak baloratuko dira 0tik 3 bitarteko puntuazioaz: Aurkezpena eta ortografia, kontakizunaren koherentzia eta zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna. Idazketa atalak 9 puntuko balioa izango du orotara.

Beraz, euskarako frogaren puntuazio globalak irakurriaren ulermena eta ekoizpen idatziaren puntuazioa biltzen du, guztira 39 puntuko balioa izanik.

Euskarako proban bildutako emaitzen inguruan ehunekorik baxuena duten galderak 23, 24, 2, 7, 18. izan dira.

Hogeita hirugarren galderari dagokionez erantzuna zuzenean agertzen da testuan, erantzun zuzen bakarra dago eta ikasleek aukeren artean osatuagoa dagoen erantzuna aukeratu behar dute testuan ematen den informazioa interpretatuz, beraz galdera motari dagokionez itxia da.

Hogeita laugarren galderan erantzuna ikasleek idatzi behar dute, baina erantzuna zuzenean agertzen da testuan, hala ere galdera irekia da, ikasleek haien hitzen bidez erantzun behar dute eta.

Bigarren galderaren erantzuna aurrekoak bezala testuan zuzenean ematen da, galdera itxia. Zazpigarren galderari dagokionez, testuan azaltzen den leku baten deskribapena azaltzea eskatzen du. Ikasleak bere modura idatzi behar duenez, galdera irekia da.

Hemezortzigarren galderan ere erantzuna zuzenean testuan azaltzen da, beraz galdera itxia da.


Erantzun zuzenen ehunekorik baxuena dituzten galdera gehienak “*Ulermen globala eta interpretazioa*” ebaluatzen dituztenak dira. Beraz, ikasleen arazoa testuaren ulermenean eta interpretazioan ematen da.

Malerrekako eskoletako erantzunak Nafarroakoekin alderatuz gero, aipagarria da 23

galderan zuzen erantzundako portzentajea ia berdina dela, soilik %19,14ak ongi erantzunda.

5.3.2. Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz

- Frogaren analisia



6. Irudia: Nafarroako eta Malerreko 4. mailako gaztelaniako ebaluazio diagnostikoaren emaitzak (2018/2019)

Gaztelaniako frogako lehenengo testuaren izenburua “El acemilero talentoso” da. “Acemilero” hitz ezezaguna izan daiteke ikasleentzat, hala ere testua ulertzeko modukoa den arren beste hainbat hitz ikasleentzat ulertzeko zailak izan daitezkeenak. Istorio bat kontatzen da elkarrizketen bidez. Bigarren irakurgaia instrukziozko testu bat da, “Instrucciones para cepillarse los dientes” izenburua du.

“El acemilero talentoso” testuaren inguruan 10 galdera daude eta “Instrucciones para cepillarse los dientes” testuko 10 galdera. Guztira dauden 20 galderetatik 19k puntu 1 balio dute eta galdera 1ek 2 puntu. Beraz, gehienezko puntuazioa 21koa da.

Galdera bakoitzaren zailtasun maila ezberdina izan da, zenbait galderetan ikasleen ehuneko portzentaje handi batek zuzen erantzunda (16. galdera %94,86ak ongi erantzun du) eta beste batzuk zailak suertatu zaizkie (8. galdera %40,42ak ongi erantzun du).

Ekoizpen idatziaren atalean ipuin bat idatzi behar dute. Ipuinari hasiera emateko ideia bat aurkezten da eta ikasleak hortik aurrera sortuko du ipuina. Idazmenean ondoko hiru atalak baloratuko dira Otik 3 bitarteko puntuazioaz: Aurkezpena eta ortografia, istorioaren koherentzia eta zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna.

Gaztelaniako proban, zuzen erantzundako galderetan ehunekorik baxuena duten galderak 8a eta 9a izan dira. Zortzigarren galdera erantzuteko ikasleek testua ulertzeaz gain, bertan azaltzen diren pertsonaien usteak zeintzuk ziren pentsatu behar da. *¿Qué habrían pensado los dos viajeros al escuchar la sentencia del juez?*, hausnartu eta baloratzeko galdera da.

Bederatzigarren galderan berriz, erantzuna testua irakurtzean ematen da, baina ez modu zuzenean. *¿Quién reconoce en el texto el talento del acemilero?*, horregatik ulertu eta interpretatu egin behar da galdera ongi erantzuteko.

5.3.3. Hizkuntza gaitasuna ingelesez

Marko teorikoan azaltzen den bezala, LOMCEk (8/2013, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko legea) hezkuntza kalitatea hobetzeko asmoz Lehen Hezkuntzako ikasleei kanpo frogak pasatzen dira etapa honetan eskuratu behar dituzten gaitasunen maila zer nolakoa den jakiteko eta hobekuntzak egin ahal izateko. 2018/2019 urteko frogaren egitura eta atal bakoitzaren ezaugarriak azalduko ditut.

Probak hiru trebetasunetako galderak ditu: ahozkoaren ulermena (Listening), irakurriaren ulermena (Reading) eta idazmena (Writing). Atal bakoitzak pisu ezberdina du, ondo taulan adierazten dira.

1. Taula: Hiru trebetasunen puntuazioa eta puntuazio osoan duten pisua (Nafarroako Gobernua, *Ebaluazio diagnostiko zentsala 2018/2019*, 2019)

Trebetasuna	Puntuazioa	Puntuazio osoan duen pisua
<i>Listening</i>	10	%27
<i>Reading</i>	15	%41
<i>Writing</i>	12	%32
GUZTIRA	37	%100

- *Ahozkoaren ulermena (Listening)*: Entzumenaren atalean egoera bati buruzko audio bat entzungo dute hiru aldiz, bitartean minutu bateko etenaldiak egingo dira. Entzumenari ekin aurretik galderak irakurtzeko bi minutuko epea izango dute. Ondotik, galderei erantzungo diote, erantzun zuzena borobilduz. Entzumenaren gaitasuna neurtuko duen atalak test moduko bederatzi galdera ditu, horietako bat hitz batez erantzun beharrekoa izanik. Kasu honetan neska batek gustuko dituen ekintzak eta gustukoak ez dituen inguruan hitz egiten du.

- *Irakurriaren ulermena (Reading):* Irakurmenaren atalari dagokionez, bi irakurmen ezberdin azaltzen dira. Hauek izenburu deigarri bat dutela esan daiteke, letra mota eta tamainari dagokionez. Testuetan erabiltzen letra mota egokia da eta ikasleek ulertzeko modukoa.


Lehenengo testua bi zatitan banaturik dago, elezaharretako bi pizti mota deskribatzen dira bertan. Gaiari dagokionez ikaslearen interesekoa izan daiteke, gainera bi irudi azaltzen dira testuarekin bat egiten dutenak eta ikaslearentzat lagungarriak izan daitezkeenak galderei erantzuterako orduan.

Bigarren testua aldiz elkarrizketa bat da, pertsonaien izenak letra lodiz adierazten dira. Aurreko irakurgaia baino zerbait konplexuagoa dela esan daiteke, hiru pertsonaien arteko elkarrizketa bat izan arren testu osoan zehar zazpi pertsonai ezberdinen izenak aipatzen dira eta horrek ikaslea nahastu dezake. Testu desberdinak izan arren irakurgaiaren gaia antzekoa da. Aurreko testuan bezala, bi irudi azaltzen dira baina kasu honetan ez dira aurreko testuko irudiak bezain lagungarriak galderei erantzuterako orduan.

Irakurmenaren ulermenaren gaitasuna neurtuko duen atalak test moduko hamabost galdera ditu, horietako zortzi lehenengo irakurgaiari dagozkio eta beste zazpiak bigarrenengo testuari.

- *Idazmenaren atala:* Idazmenaren gaitasunari dagokionez, gaiarekiko aurreko atalaren ildo bera jarraitzen duela esan daiteke. Elezaharretako pizti edo pertsonaien inguruko gaia erabili da irakurgaietan eta baita idazmena lantzen den atalean ere. Kasu honetan pizti edo izaki fantastiko bat imajinatzea eta deskribatzea eskatzen du ariketak. Horretarako ohar bat azaltzen da, ikasleak ideiak hartzeko lehenengo eta bigarren irakurgaietara jotzeko aholkua ematen du.

Ondotik, testu egoki bat osatzeko eskema labur bat ematen da ikasleak bere ideiak ordenatu ahal izateko, eskema hori ez da ebaluatuko. Bertan ikasleek idatzi behar duten testuak izan behar dituen atalak zein diren azaltzen dira, hala nola, izaki fantastikoaren izena, nolako itsura duen piztiak, non bizi den, zer gauza edo ekintza egin ditzaken eta zeintzuk ez eta nola elikatzen den. Beste orrialde batean testua txukun idatzi dezaten txantilo bat azaltzen da, non idazmenaren lehenengo esaldia ematen den ikasleak testuari hasiera eman diezaion.



7. Irudia: Nafarroako eta Malerrekako 4. mailako ingeleseko ebaluazio diagnostikoaren emaitzak (2018/2019)

Barra diagramari erreparatuz gero, galderak Nafarroako batz bestekoan zuzen erantzundako ehunekoaren arabera ordenaturik dago. Beraz 1 galderarekin hasten da grafikoa, honek esaten digu Nafarroa mailan lehenengo galdera %90ak baino gehiagok zuzen erantzun dutela. Aldiz, azkeneko galderari erreparatuz gero, hamaikagarren galdera izango zen Nafarroa mailan ikasle guztien %50aren azpitik zuzen erantzun dute galdera.

▪ Frogaren analisisa

Aurreko grafikoak azaltzen den bezala, argi ikus daiteke zein diren Nafarroako eta Malerrekako eskolek frogaren galdera bakoitzean erantzundako galdera zuzenen ehunekoa. Grafikoa aztertuz gero, test moduko galdetegiak dituen hogeita lau galderetatik soilik zortzi galderetan nabarmendu dira Malerrekako eskolen emaitzak Nafarroak dauzkan zuzen erantzundako portzentajearekin alderatuz gero.

Grafikoa sakonki behatu gabe argi ikusten da hiru galderetan %10a baino gehiagoko portzentajearen aldea dagoela, bigarren, hamaseigarren eta hogeita laugarren galderetan zehatz-mehatz. Bigarren ariketa entzumenezko atalari dagokio eta galdera bi ataletan banatzen da. Entzumenean aipatu diren musika mota horietako bat idatzi behar dute. Audioa entzun ondoren baliteke ikasleek galderan huts egitearen arrazoia musika estilo ezberdinen ezagupen falta izatea. Aldiz Nafarroako datuen arabera %70ak zuzen erantzun zuten. Hamaseigarren galderari dagokionez, irakurgaiaren atalekoa da. Erantzuna ez da zuzenean ematen baizik eta ikasleak testua interpretatu behar du, inferentziatzko galdera da. Hogeita laugarren galdera, bigarren testuari dagokiona bai Nafarroako eta bai

Malerrekako datuek ikasleen %50ak baino gehiagok huts egin dute. Gaiaren aldetik, ikasleentzat konplexua izan daiteke Greziar kulturako piztien ingurukoa baita. Eta galderaren erantzuna bi esaldi ezberdinetan aurkitzen da.

- Galderen ezaugarriak eta ebaluatzen den prozesua

Taula honetan ingeleseko frogako galderen informazioa adierazten da, emaitzen analisia egin eta ulertzeko baliagarria den informazioa biltzen du. Galdera irekia ala itxia den, lor daiteken gehieneko puntuazioa eta galdera bakoitzean ebaluatzen dena azaltzen da. Aurreko grafikoari erreparatuz gero, emaitza baxuena duten galdera asko “Ulermen globala eta interpretazioa” motako galderak dira.

2. Taula: Hiru trebetasunen puntuazioa eta puntuazio osoan duten pisua (Nafarroako Gobernua, *Ebaluazio diagnostiko zentsala 2018/2019, 2019*)

Galdera	Mota	Puntuazioa	Ebaluatzen den prozesua
1	Itxia	1	Informazioa aurkitu eta lortu
2	Irekia	2	Informazioa aurkitu eta lortu
3	Itxia	1	Ulermen globala eta interpretazioa
4	Itxia	1	Ulermen globala eta interpretazioa
5	Itxia	1	Ulermen globala eta interpretazioa
6	Itxia	1	Ulermen globala eta interpretazioa
7	Itxia	1	Informazioa aurkitu eta lortu
8	Itxia	1	Informazioa aurkitu eta lortu
9	Itxia	1	Informazioa aurkitu eta lortu
10	Itxia	1	Informazioa aurkitu eta lortu
11	Itxia	1	Ulermen globala eta interpretazioa
12	Itxia	1	Ulermen globala eta interpretazioa
13	Itxia	1	Hausnarketa eta balorazioa
14	Itxia	1	Hausnarketa eta balorazioa
15	Itxia	1	Informazioa aurkitu eta lortu
16	Itxia	1	Ulermen globala eta interpretazioa
17	Itxia	1	Ulermen globala eta interpretazioa
18	Itxia	1	Informazioa aurkitu eta lortu

19	Itxia	1	Informazioa aurkitu eta lortu
20	Itxia	1	Ulermen globala eta interpretazioa
21	Itxia	1	Ulermen globala eta interpretazioa
22	Itxia	1	Informazioa aurkitu eta lortu
23	Itxia	1	Hausnarketa eta balorazioa
24	Itxia	1	Ulermen globala eta interpretazioa
25	Irekia	12	Aurkezpena eta ortografia, koherentzia, zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna

Ingeleseko frogaren emaitzak euskarako eta gaztelaniakoekin alderatuz gero, zenbait informazio lortu da. Ingeleseko emaitzei dagokionez, esan bezala “Ulermen globala eta interpretazioa” galderetan huts egiten dute gehien bat, baina batez ere hiztegi faltari dagokio arazoa. Ikasleek galderen erantzunak testuan zuzenean aurkitzen ahal dituzte baina sinonimoen bidez adierazita dagoenez, ez dute erantzuna aurkitzen. Ingeleseko eta gaztelaniako frogetan antzeko zerbait ematen da, ikasleen ama hizkuntza euskara da eta froga hauen emaitzetan ere nabaritzen da. Gaztelanian ingelesekoan bezala hiztegi falta nabaritzen da ere.

5.4. Galdetegia

Nafarroako Gobernutik eskoletara bidaltzen diren kanpo frogetaz gain, informazio gehiago eskuratzeko asmoz galdetegi bat sortu zen. Malerrekako eskoletako ikasleen ingeles hizkuntza gaitasuna, hizkuntzaren erabilera eta trebetasunen inguruko datuak galdetzen zaizkie ingeles irakasleei. Aurretik azaldu bezala, Malerrekako eskola taldea txikia da, beraz galdetegiari bost irakaslek erantzun diote.

Galdetegia erantzuterakoan agertzen den lehenengo gauza sarrera labur bat da, erantzunak erabat anonimoak direla azaltzen da, jasotako datuak Gradu Bukaerako Lana egiteko erabili dira soilik. Lehenik eta behin, ikerketarekin aurrera egiteko zein informazio nuen ikusi eta zein informazio edo daturen ezagupena behar nuen aztertu nuen. Behin galderak osaturik, nire tutoreari bidali nizkion eta hainbat aldaketen ondoren Google Imprimakiak formatura pasa nuen. Galdetegia posta elektronikoko bidez partekatu nuen praktikak egin nituen Sunbillako eskolako ingeles irakaslearekin eta honek Malerrekako eskoletako ingeles

irakasleei partekatu zien galdetegia.

Guztira hemezortzi galdera izanik, eta bost erantzun ez da beharrezkoa izan datuak Excel batean deskargatzea. Esan bezala, galdetegi honen helburua ikasleek haien egunerokotasunean ingelesa ikasgaiarekiko jarrera, erabilera eta zein trebeziatan gehiago sakondu beharko luketen jakitea da.

Ikasleek Lehen Hezkuntzako etapa amaitzean lortzen duten ingeles maila egokia dela esango zenuke?

Galderari erantzuteko 1etik 10 bitarteko zenbaki eskalan aukeratu behar dute. Bost irakasletatik hiruk (%60) 7 balioa aukeratu dute eta bik (%40) 8 balioa. Beraz Lehen Hezkuntzako Malerrekako ingeles irakasleek ikasleen ingeles maila orokorrean egokia dela adierazi dute.

Ikasleek ingelesez hitz egiten dute klasean?

Galderari erantzuteko lau aukera daude: beti, gehienetan, gutxitan, inoiz.

Bost irakasleetatik hiruk (%60) gutxitan erantzun dute eta beste bi irakaslek (%40) gehienetan aukera.

Ikasleek klasean egiten duten ingelesaren erabilera orokorrean zuzena da?

Galderari erantzuteko 1etik 10 bitarteko zenbaki eskalan aukeratu behar dute. Bost irakasletatik batek (%20) 5 balioa aukeratu du, beste batek (%20) 6 balioa eta azkenik hiru irakaslek 7 balioa aukeratu dute. Beraz, irakasleek haien ikasleen ingeles maila egokia dela uste duten arren ez daude oso ados ikasleek klasean egiten duten ingelesaren erabilerarekin.

Ikasleek interesa erakusten dute ikasgaiarekiko?

Galderari erantzuteko 1etik 10 bitarteko zenbaki eskalan aukeratu behar dute. Aurreko galderarekin bat dator hau, ikasleen interesa ezagutu nahi da. Bost irakasletatik batek (%20) 5 balioa aukeratu du, beste batek (%20) 6 balioa eta beste hiruk (%60) 8 balioa.

Eskuratutako erantzunei erreparatuz gero, aurreko galderaren oso antzekoak direla ikusten da.

Atzerriko hizkuntza irakasteko baliabide digitalak edo IKT-ak erabiltzen dituzu?

Galderari erantzuteko lau aukera daude: saio guztietan, gehienetan, gutxitan, inoiz. Kasu honetan galdera irakasleen IKT edo teknologia berrien erabilera ezagutzeko da. Bost irakasletatik lauk (%80) gehienetan aukera sakatu du eta beste irakasle batek (%20) gehienetan aukera. Argi dago baliabide eta teknologia berriak geroz eta gehiago erabiltzen direla eta oso lagungarriak izan daitezkeela ikasgai bat irakasterakoan.

Baiezkotan zeintzuk dira erabiltzen dituzun baliabide digitalak?

Galdera irekia da, beraz irakasleek erabiltzen dituzten baliabideak idatzi dituzte.

“irakurgaiak, kantak, gramatika, jolasak... lantzeko aukera ematen uten webguneak”

“Blogak, testu liburu digitalak”

“Arbel digitala, youtube”

“Telebista digitala eta Drive”

“Arbel dijitala eta ordenagailua.”

Aurreko galderarekin jarraituz, argi ikusten da irakasle guztiek arbela digitala daukatela ikasgelan eta hau erabiltzen dutela. Erantzunei dagokionez osatuagoa dagoen bat dago, *“irakurgaiak, kantak, gramatika, jolasak... lantzeko aukera ematen uten webguneak”* arbela eta baliabide digitalak bere osotasunean erabiltzen dituela argi dago. Testu liburu digitalak eta drivez haratago doa, ikasleak partaide egiten ditu, kantak, jolasak eta webgune ezberdinak erabiliz.

Hala era aipatu beharra da irakasle guztiek baliabide digitalak ezagutzea eta hauek erabiltzen dituztela positiboa dela. Duela urte batzuk atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza testu liburu eta CD-etara mugatzen zen. Gaur egun aldiz, baliabide eta plataforma digital egokiak aurkituz gero irakasgaia lantzeko material eta baliabideak anitzak dira. Bestetik, irakasleek sareko baliabideak erabiltzeak ikasle askoren interesa sor dezake, haien etxetatik

ere webgune, jolas edo abestiak horiek lantzeko.

Ikasleen ingelesaren maila hizkuntza-trebetasunak nola ebaluatzen dituzu?

Galdera irekia da, irakasle bakoitzak irakasgaia ebaluatzeko modua erantzun du.

“Ahozko produkzioa zein irakurmena grabaketak eginez, gero ikusiz eta akatsak zuzenduz”

“Ingelesaren erabilera maila neurtuz: elkarrizketak, testak...”

“Azterketen bidez, proiektuen bidez, aurkezpenen bidez.”

“Ingeleseko lau arloak ebaluatzen ditut: speaking, reading, listening eta writing. Speaking lantzeko taldekako ahozko ariketak egiten ditugu; entzumenak lantzeko ariketa desberdinak egiten ditugu, abestiak, pelikulak,... Writing lantzeko gai bakoitzean proiektu bat lantzen dugu eta reading lantzeko testu desberdinekin egiten dugu lan.”

“Azterketekin eta egunerokotasunean (parte-hartzea, jarrera, ahozkotasuna...)”

Orokorrean irakasle guztiek hizkuntza-trebetasunak ebaluatzeko tresna desberdinak erabiltzen dituzte. Oso positiboa iruditzen zait ohiko azterketa edo test tresnaz gain bestelakoak erabiltzea, hala nola grabaketak, proiektuak, aurkezpenak etab. erabiltzea. Baliabide digitalak erabiltzeko interesa areagotu den heinean, ikasleak ebaluatzeko baliabide edo tresna gehiago erabiltzen dira. Bestetik, ahozkotasuna ebaluatzeko grabaketak erabiltzea interesgarria iruditzen zait, modu honetan ikasleek ikasturtean zehar egin dituzten aurrerapen eta hobekuntzak jasotzen ditu. Irakasleak ikaslea baloratzeko erabiltzeaz gain, ikaslearen motibazioan oso positiboa izan daiteken tresna da, modu erraz batez bere eboluzioa entzun dezake eta.

Horien artean zeintzuk dira ikasleen ingelesa neurtzeko erabiltzen dituzuen kanpo frogak?

Galdera irekia da, irakasle bakoitzak ebaluatzeko erabiltzen dituen kanpo frogak adierazi behar dira.

“Departamentuak ezartzen dituenak”

“Beste urte batzuetako eta beste tokitako kanpo frogak ereduak”

“Hezkutzak prestatutakoak”

“Kanpo frogak listening, reading eta writing neurtzen dute.”

“Departamentutik bidaltzen dituzten kanpo frogak eta liburuko azterketak.”

Ingelesa neurtzeko hezkuntza departamentutik igortzen diren frogetara mugatzen dira gehienak, soilik irakasle batek beste urte eta tokietako frogak erabiltzen ditu. Kanpo frogak urteko egitura berdina jarraitzen duten arren, egokia izan liteke beste mota bateko frogak lantzea. Azken finean ikasleen ingelesa hizkuntzako gaitasuna kanpo frogan islatu behar da, erabiltzen den froga edozein dela ere.

Kanpo frogen emaitzek ikasleen ingeles maila islatzen dute? Zergatik?

Galdera hau erantzuteko “Bai” eta “Ez” aukerak izanik, irakasle guztiek bat datoz kanpo frogak ez dutela ikasleen ingeles maila islatzen.

“Ez direlako aproposak”

“Ez datozelako bat gelan egiten dugunarekin. Gainera ez dute ahozkoasuna kontutan hartzen”

“Askotan ez datoz bat, gelan egiten denarekin.”

“Alde batetik, ingeles maila altuagoa dutelako gure eskoletan lantzen dena baino eta bestetik, kurtsoan zehar ez dira horrelako ariketak egiten eta normalean galdetzen dena ez dute ulertzen.”

“Kanpo frogen azterketen maila altuegia delako.”

Kanpo frogetan erabiltzen diren testu eta entzumenak egokiak direla uste duzu? Zergatik?

“Bai” eta “Ez” aukerak izanik, irakasle guztien bat datoz erantzunarekin. Ez direla egokiak adierazi dute.

“ez dutelako hiztegi aproposa erabiltzen eta testuen gaiak ez direlako ikasleen intereseko orokorrean”

“Ez dutoz bat gelako lanarekin. PAI ereduak eta exzelentzia faltsu bat dute helmugs”

“Normalean, ez dira ikasleengan pentsatutakoak”

“Testu liburuak jarraitzen ditugu eta horietan entzumenak eta testuak kanpo frogetan agertzen direnak baino askoz sinpleagoak dira beraz, ez daude horretara ohituta.”

“Maila altuegia delako.”

Irakasle guztiakin bat nator, irakasle graduan egiten diren aipameneko praktikei erreparatuz gero, egia da testuliburuetan azaltzen diren testuak askoz sinpleagoak direla bai hiztegi aldetik eta bai luzera eta zailtasun aldetik ere. Gainera egia da askotan testuak ez direla ikasleen interesekoak eta horrek ere eragina du ikasleengan.

Ingelesean ematen diren aurrerapenak lotuta daude ikasle bakoitzaren euskararen edota gaztelaniaren mailarekin?

Galderari erantzuteko “Bai” eta “Ez” aukerak izanik irakasle guztiak ez dute berdin pentsatzen.

Bost irakasletatik batek “Ez” erantzun du. Lanean zehar Cummins adituaren teoria azaltzen da. Teoria honek hizkuntzen arteko elkarmenpeketasuna azaltzen du, beraz argi dago hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen ditugunean elkarren artean transferentziak ematen direla.

Gurasoen inplikazioa ingeles ikasgaietan beste ikasgaiarekin alderatuz egokia dela iruditzen zaizu?

Galderari erantzuteko “Bai” eta “Ez” aukerak izanik irakasle guztiak ez dute berdin pentsatzen.

Bost irakasletatik batek “Ez” erantzun du. Galdera honek, ikasleek ikasgaiarekiko erakusten duten motibazioa edo interesarekiko adierazgarria da. Lan honen sarreran adierazten den bezala, egun bizi garen gizartean ingelesez hizkuntzak geroz eta garrantzia handiagoa jaso du azken urteetan eta hori hezkuntzan islatzeaz gain, biztanleriak hizkuntzarekiko duen interesean eragin du ere.

Partikularretara joaten eta joaten ez diren ikasleen artean aldea nabaritzen da?

Galderari erantzuteko “Bai” eta “Ez” aukerak izanik irakasle guztiek ez dute berdin pentsatzen.

Galdetegia bost irakaslek erantzun arren galdera honi soilik lau irakasleek erantzun dute. Hiru irakaslek partikularretara joaten diren ikasleetan aldea nabari dela adierazi dute eta batek berriz “Ez” aukeratu du.

Baiezkotan, zein alderditan nabaritzen da?

Galderari erantzuteko ondorengo aukerak ematen dira: “Hiztegia”, “Gramatika”, “Ahozkoatasuna” eta “Beste alderdi batzutan”.

Galdetegia bost irakasleek erantzun arren galdera honi soilik hiru irakaslek erantzun dute. Batek “Gramatika”, beste batek “Ahozkoatasuna” eta azkeneko batek “Beste alderdi batzutan” aukeratu dute.

Orokorrean partikularretara joaten diren ikasleetan nabaria da hizkuntzaren aspekturen batean.

Hizkuntzaren zein trebetasun landu behar dute gehiago ikasleek? (aukeratu bat edo gehiago)

Galderari erantzuteko ondorengo aukerak ematen dira: “Idazmena”, “Irakurketa”, “Ahozkoatasuna”, “Entzumena” eta “Beste batzuk”.

3. Taula: Ingeles hizkuntzan landu beharreko trebetasunak.



Erantzunak modu azkar batez ikusteko aurreko grafikoa sortu da, argi ikus daiteke irakasle gehienek haien ikasleek landu behar duten trebetasuna ahozkoasuna dela. Bestetik, idazmena ere hobetu beharreko aspektu bat dela adierazi dute.

Eta zuretzat nola landu beharko lirateke trebetasuna hauek?

Galdera irekia da, irakasle bakoitzak bere ideiak adierazi behar ditu.

“Egoera errealak erabiliz: Antzezlan, errezitaldi, karaoke...”

“Ikasle bakoitzari Hizkuntza erabiltzeko aukerak gehituz”

“Garantiza handiagoa emanez egunerokoan”

“Tebetasun guztiei behar duten garantiza emanez eta trebetasun guztiak lantzeko ariketa desberdinak prestatuz.”

“Irakurketarekin erlazionatuta dagoela errango nuke, gehiago irakurri beharko lukete. Hori eginez gero eta gehiago saiatuz gero, haien idazmen trebetasuna hobetuko luke.”

Orokorrean irakasle guztien ideia berdina dela esango nuke, ikasleek trebetasun guztiak pixka bat gehiago landu beha dituztela uste dute, baina horretarako oso garrantzitsua da ikasleei hizkuntza erabiltzeko aukerak ematea eta hori egiteko baliabideak eskaintzea.

5.5. Proposamen didaktikoa

5.5.1. Helburuak

Etapako helburuei dagokionez, 60/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen dituen helburuei erreparatu zaie. Hain zuzen ere etapako b), c), d), f), j) helburuak erdiesteko gaitasunak ahalbideratzen dira.

Proposamenaren helburuei dagokionez, ondoko helburuak lortzera bideraturik dago:

- Etxeko animalien eta animalia basatien hiztegia ezagutzea
- Egitura sintaktiko sinpleak ulertzea eta erabiltzea
- Abesti eta jolasetan parte hartzea
- Soinu eta hizkien arteko loturak egitea
- Sormena eta irudimena lantzea
- Irakurmenaren ulermena lantzea

5.5.2. Edukiak

Atal praktikoa honek biltzen duen proposamena sortzeko 60/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen duena kontuan izanik sortu da. Bertan atzerriko lehen hizkuntza ingelesa ataleko edukiei erreparatu zaie, hain zuzen ere lehenengo mailako edukiei. Aurretik azaldu bezala, lau bloketan banaturik dago curriculumean: ahozko mezuak ulertzea, mintzamina: adierazpena eta elkarreragina, testu idatziak ulertzea eta testuak idaztea: adierazpena eta elkarreragina. Proposamenean zehar landuko diren edukiak beheko tauletan biltzen dira.

AHOZKO MEZUAK ULERTZEA
1.1. Ulermenerako oinarrizko estrategiak erabiltzea: entzute aktiboa, irudiak irakurtzea eta adierazpen eta lexiko ezagunak identifikatzea.
2.4. Bakarka edo taldeka, hizkuntz jolasetan parte hartzea, material desberdinak erabiliz, baliabide digitalak barne.
3.4. Honakoak entzun eta ulertzea: egoera errealak simulatzen dituzten solasaldiak, mailarako egokiak diren ahozko narrazioak edo ahozko testu erraz eta informatiboak, ahoz

esandakoak edo informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz, gaitasuna, gustukoa adierazten dutenak, pertsonak, animaliak edo gauzak deskribatzen dutenak, edo laguntza, argibideak, gauzak edo baimena eskatzeko direnak.

4.1. Irakasleak erabiltzen dituen oinarritzko egitura sintaktikoetara hurbiltzea:

–Baiezko esaldiak (*affirmative sentences; Yes (+ tag)*).

–Ezezko esaldiak (*negative sentences with not*), *never, no (Adj.)*, *No (+ negative tag)*.

–Espazioa adieraztea (*prepositions and adverbs of location, position*).

6.1. Hizkuntzaren erritmora eta sonoritatera hurbiltzea, horretarako, leloak, hitz-kateak, aho-korapiloak, abestiak, igarkizunak, marrazki bizidunak eta abar baliatuz.

MINTZAMENA: ADIERAZPENA ETA ELKARRERAGINA.

1.1. Plangintza.

–Ereduen imitazioa eta errepikapena erabiltzea mezua argi sortzeko.

2.1. Ingelesa egoera desberdinetan erabiltzeko interesa eta testuinguru ezagunetan oso lan errazak sortzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.

2.4. Bakarka edo taldeka, hizkuntz jolasetan parte hartzea, material desberdinak erabiliz, baliabide digitalak barne.

3.3. Pertsonen, gauzen eta animalien deskribaketa.

4.1. Oinarritzko egitura sintaktikoen erabilera

–Modalitatea adieraztea: ahalmena (*can*); betebeharra (*have (got) to; imperative*); baimena (*can*).

–Espazioa adieraztea (*prepositions and adverbs of location, position*) *Here, there, on, in, under*.

5.1. Gai hauei buruzko lexikoa eta esamoldeak: etxeko animalia eta beste animalia batzuk; jolasa; formak; neurriak eta koloreak.

6.1. Hizkuntzaren erritmora eta sonoritatera hurbiltzea, horretarako, leloak, hitz-kateak, aho-korapiloak, abestiak, igarkizunak, marrazki bizidunak eta abar baliatuz.

TESTU IDATZIAK ULERTZEA

2.4. Kode alfabetiko berbera dugula baina fonetika desberdintasun fonetikoak daudela jabetzea.

4.1. Oinarritzko egitura idatzietara hurbiltzea

5.1. Irudia eta hitza lotuta ikusteko eta ikasgelan ikasleek ikusten dituzten eta oso maiz erabiltzen diren hitzak eta esamoldeak irakurtzeko ohitura hartzea.

TESTUAK IDAZTEA: ADIERAZPENA ETA ELKARRERAGINA.

3.3. Inprimaki oso errazak osatzea, irudien bidez adierazitako aukerak seinalatuz edo oso oinarrizkoak diren datu pertsonalen kopuru mugatu batekin

4.1. Oinarrizko egitura idatzien erabilerarekin ohitzea:

It's...(in, on, under).

I like/I don't like.

5.5.3. Metodologia

Proposamen hau aurrera eramateko, batez ere talde lanean egingo da. Jarduera asko bakarka egiteko prestatuak diren arren, beti ere talde lanean aritzeko aukera dago, jarduerak ozenki landuz. Irakurmena lantzerakoan bereiziki errepikapena erabiliko da, hau da, lehenik ikasleek testua beren kabuz irakurriko dute, ondotik irakasleak eta azkenik ikasleek.

Irakasleari dagokionez, ezinbestekoa da ikasleak gidatzea. Atzerriko hizkuntza batez ari garenean, baliteke ikasleak ama hizkuntzan lantzen dituzten ikasgaietan baino zalantza eta zailtasun gehiago izatea edota hitzak ez ulertzea, horregatik irakaslearen papera oso garrantzitsua da, ikasleen motibazioa eta interesa piztea bilatu behar du.

Proposamenean zehar *Jolly Phonics* metodologian azaltzen diren soinuen bideoak erabiliko dira, ikasleentzat interesgarria eta ikastera motibatzen dituen modua da. Hizkiak soinuekin eta mimika moduko mugimendu batekin lotzen dira, idazketa eta irakurketa lantzeko metodoa da. Hauetaz gain, abestiak eta istorioak kontatzen dituzten bideoak ere erabiltzen dira, baita jokoak ere.

5.5.4. Oinarrizko gaitasunak

Proposamen didaktiko honen bidez landuko diren gaitasunak 60/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumaz ezartzen duena aztertuz gero, ikasleek etapan zehar zazpi gaitasunak eskuratu beharko dituztela azaltzen da. Horretarako aldi berean gaitasun bat edo gehiago biltzen dituen jarduerak sor daitezke. Lan honetan aurkezten den proposamenean lantzen diren gaitasunak hauek izanik:

- *Hizkuntza komunikazioa:* ingeles ikasgaia lantzean, hizkuntza komunikazioaren gaitasuna garatzen da. Hizkuntzaren trebetasunak lantzen dira azaltzen diren saioetan, ahozkotatzen, irakurmena, idazmena eta entzumena gaitasunak.

- *Gaitasun digitala*: ikaskuntza prozesuan baliabide teknologikoei erabilpen egoki bat ematean datza, proposamen honetan zehar abesti eta entzumenak erabiltzen dira, beti ere gaiarekin lotura dutenak.
- *Ikasten ikastea*: Cummins eta Cenozen ikerketak behatu ondoren, argi esan daiteke hizkuntzen arteko elkarmenpeketasuna dagoela eta nola eragiten duen hizkuntza bat baino gehiago ezagutzeak. Ikasleek nola lan egin ikasiko dute.
- *Ekimena eta ekintzailtza*: aurkezten den proposamenaren medioz ikasleek talde lanean nola egin ikasiko dute, guztien gaitasunak eta baliabideak erabiliz.

5.5.5. Saioen sekuentziak

Jarduerak saioa banatuko dira, honekin batera taldekatzeak nola antolatuko diren ere azalduko da, baita jarduerak aurrera eramateko zein baliabide eta material erabiliko diren agertuko da. Informazio guzti hau modu erraz batez ikusi ahal izateko saio bakoitza taula batean bilduko da. Proposamenak guztira zortzi saio irauten ditu. Sunbillako eskolaren testuinguruan sortua izan denez, asteko ingeles saioak bost dira, horietako bat arte hezkuntza saioa izanik, orotara ingeleseko sei saio eta bi arte hezkuntza saioa edo “*art and craft*” saio azaltzen dira.

Ikasleak ebaluatu ahal izateko bi errubrika sortu dira, XIII. Eranskinean aurkitzen dira. Lehenengo errubrikan, ebaluazio jarraituaren errubrika deitzen denean, ikasleek jardueretik zein jarrera dute ezagutzeko balio du. Ikasleen parte hartzea, lankidetzeta eta ikasgela eta ikaskideekiko jarrera ebaluazio irizpideak biltzen ditu, bikain, ongi, nahikoa eta gutxiegi mailekin. Bigarren errubrikak berriz, ikasleak proposamenean zehar eskuratu beharrezkoak lortu dituzten neurtzeko balio du. Hiztegia, gramatika, ahoskera eta edukiak ebaluatuko dira berriz ere bikain, ongi, nahikoa eta gutxiegi mailekin.

1. SAIOA: <i>Farm animals and wild animals</i>	
Helburuak: Abesti eta jolastean parte hartzea; Soinu eta hizkien arteko loturak egitea; Etxeko animalien eta animalia basatien hiztegia ezagutzea.	
Taldekatzea: Talde osoa	
Denboralizazioa: 10 minutu	Materiala: Arbela digitala edo ordenagailua
<p>1. Jarduera: Ikasleek gai berriari sarrera emateko Youtube plataformako bi bideo erabiliko dira, hurrengo saioetan landuko duten hiztegia ezagutzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Jolly phonics "A"</i> (https://youtu.be/9Buqp3r06zA) ▪ <i>"Farm animals song"</i> (https://www.youtube.com/watch?v=EwIOkOibTgM) 	
Helburuak: Etxeko animalien eta animalia basatien hiztegia ezagutzea.	
Taldekatzea: Talde osoa	
Denboralizazioa: 25 minutu	Materiala: I. eranskina
<p>2. Jarduera: Etxeko animaliak eta animalia basatiak lantzen dituen fitxa bat egingo dute, <i>"Where do animals live?"</i> eta lehenengo saioa denez ikasle guztiek batera ozenean egingo dute. Fitxa honetan etxeko animalia (<i>farm animals</i>) eta animalia basatiak (<i>wild animals</i>) lantzen dira. Testu labur baten bidez sarrera ematen du eta ondotik animaliak sailkatzeko eta koloreztatzekeo jarduera bat egingo dute.</p>	
Helburuak: Egitura sintaktiko sinpleak ulertzea eta erabiltzea.	
Taldekatzea: Bi edo hiruko taldeetan	
Denboralizazioa: 15 minutu	Materiala: Arbela
<p>3. Jarduera: Jarduera honetan ikasleek ahozkoatasuna landuko dute. Hiztegi aldetik, animalien izenak landuko dira eta egitura sintaktikoen aldetik <i>Have you got a.....?, Yes, I have got a....</i> galdera eta baieztoko esaldiak landuko dira. Ikasleak laguntzeko, irakasleak behar izanez gero arbelean landuko diren egiturak idatziko ditu, alde batetik galderak eta bestetik erantzunak nola eman.</p>	

2. SAIOA: *I live at home*

Helburuak: Abesti eta jolastean parte hartzea; Soinu eta hizkien arteko loturak egitea.

Taldekatzea: Talde osoa

Denboralizazioa: 10 minutu

Materiala: Arbela digitala edo ordenagailua

1. Jarduera: Saioari hasiera emateko Youtuben bideoa bat ikusiko dute. Ondotik, *Jolly Phonics* "A" soinuraren bideoa.

- "I have a pet" (<https://youtu.be/pWepfJ-8XU0>)
- *Jolly phonics* "A" (<https://youtu.be/9Buqp3r06zA>)

Helburuak: Egitura sintaktiko sinpleak ulertzea eta erabiltzea; Irakurmenaren ulermena lantzea.

Taldekatzea: Talde osoa

Denboralizazioa: 10 minutu

Materiala: II. eranskina

2. Jarduera: Ikasleek etxeko animaliei buruzko bi testu irakurriko dituzte ozenki. "*Molly the cow*" eta "*Rod the dog*" testuak animalia hauen buruzko ezaugarri eta datu batzuk ematen dituzte, ondorengo jarduera egiteko erabiliko direnak. Testuak ulertu dituztela ziurtatzeko, hirutan irakurriko dira, lehenik ikasleek bakarka, ondotik irakasleak eta azkenik ikasleek ozenki.

Helburuak: Egitura sintaktiko sinpleak ulertzea eta erabiltzea.

Taldekatzea: Talde osoa

Denboralizazioa: 30 minutu

Materiala: III. eranskina

3. Jarduera: Irakurritako testuen inguruko fitxa bat egingo dute. Bertan mota desberdinetako galderak daude, erantzuna borobiltzekoak eta idazteko bat. Ondotik hizki zopa bat egingo dute animalien izenak errepasatzeko.

3. SAIOA eta *6. SAIOA: Arte hezkuntza saioak**Helburuak:** Sormena eta irudimena lantzea.**Taldekatzea:** Talde osoa**Denboralizazioa:** 50 minutuko bi saio**Materiala:** egunkari eta aldizkariak, kartulinak, itsasgarria eta guraizeak. IV. eranskina.

1. Jarduera: Bi saio hauetan animalia baten collage batean lan egingo dute ikasleek. Arte hezkuntza saioak izan arren, ikasgaia ingelesez lantzen da. Jarduerarekin hasi aurretik sarrera moduko bat egingo du irakasleak, ikasleei collage bat zer den azalduko zaie, nola lan egin eta zein material erabiltzen diren.

Lehenik, ikasleei bi irudi emango zaizkie aukeran. Aurreko saioan landutako irakurgaiarekin loturik txakur eta behi baten irudiak izango dira. Ondotik, aldizkari eta egunkariak erabiliz, zatitxo txikiak moztuko dituzte collagea egiteko.

Arte hezkuntza ikasgai bereiziki ikasgelaren txukuntasuna eta garbitasuna oso garrantzitsuak dira, beraz saio bukatu baino lehen 10-15 minutu eskainiko zaizkio garbitasunari, irakasleak behar bezainbeste denbora emango dio honi.

Azaldu bezala, jarduera honek bi saio iraungo ditu, beraz seigarren saioan ere jarduera berdinarekin jarraituko dute. Jarduera amaitzean ikasleen eskulanak horman itsatsiko dituzte, guztiek ikus ditzaten.

4. SAIOA: *Who am I?***Helburuak:** Abesti eta jolastean parte hartzea; Soinu eta hizkien arteko loturak egitea.**Taldekatzea:** Talde osoa**Denboralizazioa:** 5 minutu**Materiala:** Arbela digitala edo ordenagailua

1. Jarduera: Aurreko saioetan bezala, *Jolly Phonics* "A" eta "S" soinuen bideoekin hasiko da klasea.

- *Jolly phonics "A"* (<https://youtu.be/9Bugp3r06zA>)
- *Jolly phonics "S"* (<https://youtu.be/GIUZiyeHems>)

Helburuak: Egitura sintaktiko sinpleak ulertzea eta erabiltzea.

Taldekatzea: Bi edo hiruko taldeetan

Denboralizazioa: 20 minutu

Materiala: Arbela eta orri zuriak

2. Jarduera: Aurreko bi saioetan landutako edukiak kontuan izanik ikasleek animalia bat aukeratu eta talde txikietan animaliaaren inguruko esaldi laburrak prestatuko dituzte.

Adibidez: *Pig/giraffe*

- *I live in..... (the farm/the jungle...)*
- *I'm..... (pink/yellow/big/small...)*
- *I eat.... (vegetables/grass...)*

Jarduerarekin hasi aurretik irakasleak arbelean adibide bat jarriko du ikasleek bertatik abiatuz haien animaliaaren inguruko esaldiak sortzeko.

Helburuak: Egitura sintaktiko sinpleak ulertzea eta erabiltzea; Etxeko animalia eta animalia basatien hiztegia ezagutzea.

Taldekatzea: Talde osoa

Denboralizazioa: 15 minutu

Materiala: Aurreko jarduerako esaldiak

3. Jarduera: Jarduera honetan aurretik osatutako esaldiak erabiliko dira. "*Who am I?*" jokora jolastuko dira. Ikasleek taldeka prestatutako esaldiak irakurriko dituzte eta gainerako ikasleek zein animalia deskribatzen ari diren asmatu beharko dute.

Helburuak: Etxeko animalia eta animalia basatien hiztegia ezagutzea; Abesti eta jolasetan parte hartzea.

Taldekatzea: Talde osoa

Denbormalizazioa: 10 minutu	Materiala: IV. eranskina
<p>4. Jarduera: Bikoteen jokora jolastuko dira, irakasleak animalien izen eta irudien <i>flashcard</i>-ak lurrean buruz behera jarriko ditu. Ikasleek txandaka txartelak goratuko dituzte bikoteak aurkituz. (Sunbillako eskolan Macmillan argitaletxeko Footprints liburuarekin lan egiten dutenez, honek bere <i>flashcard</i>-ak ekartzen ditu. Bestela, IV. eranskinean azaltzen diren <i>flashcard</i>-ak edo antzekoak sortu daitezke).</p>	

5. SAIOA: <i>I have got pink ears</i>	
Helburuak: Abesti eta jolasetan parte hartzea; Soinu eta hizkien arteko loturak egitea; Etxeko animalien eta animalia basatien hiztegia ezagutzea.	
Taldekatzea: Talde osoa	
Denbormalizazioa: 10 minutu	Materiala: Arbela digitala edo ordenagailua
<p>1. Jarduera: Aurreko saioetan bezala, <i>Jolly Phonics</i> soinuen bideoekin hasiko da saioa. Ondotik, etxeko animalien abesti batekin jarraituko du.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Jolly phonics "S"</i> (https://youtu.be/GIUZiyeHems) ▪ <i>"Farm animals song"</i> (https://www.youtube.com/watch?v=EwIOkOibTgM) 	
Helburuak: Egitura sintaktiko sinpleak ulertzea eta erabiltzea; Irakurmenaren ulermena lantzea.	
Taldekatzea: Talde osoa eta bakarka	
Denbormalizazioa: 20 minutu	Materiala: VI. eranskina
<p>2. Jarduera: Idazmena zein irakurmena lantzeko, hitz batzuk falta dituen testu bat landuko da. Aurretik irakasleak testua irakurriko du, ikasleek zalantzarik badute hauek argitzeko. Ondotik ikasleek ozenki irakurriko dute eta amaitzeko ikasle bakoitzak bere kabuz falta diren hitzekin osatu beharko dute testua. Gero guztiak batera zuzenduko dute.</p>	
Helburuak: Egitura sintaktiko sinpleak ulertzea eta erabiltzea.	
Taldekatzea: Talde osoa eta bakarka	
Denbormalizazioa: 20 minutu	Materiala: VII. eranskina

3. Jarduera: eranskin honetan esaldiak adierazten duena margotu beharko dute ikasleek. Jarduerak ondoko motako esaldiak biltzen ditu: *“Draw a green animal”* (marratzu berdea den animalia bat), *“Draw a very big animal”* (marratzu handia den animalia bat). Ikasleek jarduerako esaldiak irakurriko dituzte eta eskatzen duena marraztuko dute.

* **6. SAIOA:** Arte hezkuntza saioa (**3. SAIOA**ren taulan azaltzen da).

7. SAIOA: *Where is the cat?*

Helburuak: Etxeko animalien eta animalia basatien hiztegia ezagutzea; Abesti eta jolasetan parte hartzea; Soinu eta hizkien arteko loturak egitea.

Taldekatzea: Talde osoa

Denboralizazioa: 10 minutu

Materiala: Arbela digitala edo ordenagailua

1. Jarduera: Aurreko saioetan bezala, Jolly Phonics soinuen bideoekin hasiko da saioa. Ondotik lekuzko adberbioak (prepositions of place) hiztegia lantzeko beste abesti bat entzungo dute.

- *Jolly phonics “S”* (<https://youtu.be/GIUZiyeHems>)
- *“In, on, under song”* (<https://youtu.be/QYerFOnPxu8>)

Helburuak: Egitura sintaktiko sinpleak ulertzea eta erabiltzea.

Taldekatzea: Bakarka

Denboralizazioa: 15 minutu

Materiala: VIII. eranskina

2. Jarduera: Aurretik entzundako abestia landuz, *“Where is the cat?”* jarduera egingo dute. Animalia beste objektu edo animalia baten aurrean, atzean, parean... egonen da eta ikasleek lekuzko adberbioak erabiliz osatuko dute ariketa. Gero guztiak batera zuzenduko dute jarduera.

Helburuak: Irakurmenaren ulermena lantzea.

Taldekatzea: Bakarka eta talde osoa	
Denboralizazioa: 10 minutu	Materiala: IX. eranskina
3. Jarduera: Animalia desberdinen bizilekuei buruzko testu labur bat irakurriko dute, lehenengo bakarka eta ondoren guztien artean ozenki irakurriko dute.	
Helburuak: Etxeko animalien eta animalia basatien hiztegia ezagutzea.	
Taldekatzea: Bakarka	
Denboralizazioa: 15 minutu	Materiala: X. eranskina
4. Jarduera: Ariketa honetan ikasleek irudiko animalia bakoitzaren bizitokiaren marrazkia animalia izenarekin lotu behar dute marra baten bidez. Lurzorua, ura edo airea (<i>land, water, air</i>) aukerak izanik. Gero guztien artean zuzenduko dute.	

8. SAIOA: <i>I live in the Antarctic</i>	
Helburuak: Etxeko animalien eta animalia basatien hiztegia ezagutzea; Abesti eta jolasetan parte hartzea; Soinu eta hizkien arteko loturak egitea.	
Taldekatzea: Talde osoan	
Denboralizazioa: 15 minutu	Materiala: Arbela digitala edo ordenagailua
1. Jarduera: Saioa hasiera Jolly Phonics entzumena eta Antartikako animalien inguruko bideo bat jarriko dira. Bigarren bideo honetan Ipar Poloko animalia ezberdinak ezagutuko dituzte istorio baten bitartez. Horretaz gain, ikasleek egitura sintaktiko sinpleak eta hiztegia errepatatuko dute. <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Jolly phonics "S"</i> (https://youtu.be/GIUZiyeHems) ▪ <i>The girl who went to the North Pole</i> (https://youtu.be/LYK8ERKPnNM) 	
Helburuak: Egitura sintaktiko sinpleak ulertzea eta erabiltzea; Irakurmenaren ulermena.	
Taldekatzea: Bakarka eta talde osoan	
Denboralizazioa: 15 minutu	Materiala: XI. eranskina
2. Jarduera: Ikasleek Hartz polarren datu batzuk azaltzen dituzten irakurgai bat landuko dute. Esaldi sinpleak eta ikasleentzat ulergarriak direnak.	

Helburuak: Etxeko animalien eta animalia basatien hiztegia ezagutzea.	
Taldekatzea: Talde osoan	
Denboralizazioa: 10 minutu	Materiala: XII. eranskina
3. Jarduera: Hartz polarraren gorputz atalak idazteko fitxa bat egingo dute. Ikasle guztiak batera osatuko eta zuzenduko dute.	
Helburuak: Etxeko animalien eta animalia basatien hiztegia ezagutzea; Abesti eta jolasetan parte hartzea.	
Taldekatzea: Talde osoa	
Denboralizazioa: 10 minutu	Materiala:
4. Jarduera: Aurreko saio batean bezala, ikasleak <i>flashcard</i> bikoteen jokora arituko dira. Modu honetan jolasteaz gain, hiztegia erreparasatzeko ere erabiltzen da joko.	

ONDORIOAK

Gradu Amaierako Lan honetan Malerrekako bailarako eskolak Nafarroako Gobernutik, Hezkuntza Departamentutik igortzen diren hizkuntza desberdinetako frogak eta hauen emaitzak aztertu dira, Lehen Hezkuntzako ingeles maila nolakoa den ezagutzeko. Horretarako Malerrekako eskola taldeko ingeles irakasleen iritzia eta ideiak ezagutzeko lanean azaltzen den galdetegia sortua izan da. Ingelesaren kanpo froga aztertzeaz gain oso erabilgarria izan da sorturiko galdetegia, bertan egunerokotasunean ingeles saioen zenbait datu eta ezaugarriaz gain, ikasleek ingelesarekiko zein jarrera eta zailtasunak dituzten ezagutzeko balio izan dit.

Ingelesa hizkuntzari dagokionez, argi dago zein den gure gizartean eta hezkuntzan daukan pisua baina lan honen bitartez, hizkuntza ikasgeletan modu egoki batez kudeatzea zein konplexua izan daiteken irakatsi dit. Batez ere ikasleek egunerokotasunean erabiltzen ez duten hizkuntza bat haien hezkuntza beharretara egokitzearen garrantzia.

Gradu Amaierako Lan hau garatu ahal izateko gaien adituak diren autore ezberdinen ikerketak eta lanei erreparatu zaie, hala nola, J.Cummins-en elkarmenpekotasunaren teoria edota Jasone Cenoz-ek ikerketa ezberdinetan jaso dituen ideiak. Teoria eta ikerketez gain, hezkuntza (Malerrekako eskoletako) errealitate bat azaltzen da lanean. Lan honen bitartez egun, D ereduko ikasgeletan ingeles ikasgaiaren egoera eta zailtasun edo gabeziak zeintzuk diren ezagutu dira. Ingelesak ikasgeletan duen presentziaz gain, argi azaldu da Lehen Hezkuntzako etapan zehar hizkuntza honen maila ez dela behar bezain beste garatzen. Galdeketa zein kanpo frogen analisia kontuan izanik, Malerrekako eskola desberdinetako ingeles irakasleek bat egiten dute, ikasleek hizkuntzaren hainbat trebetasun gehiago landu behar dituzte adierazpenarekin. Irakasleek haien saioetan material eta baliabide didaktiko anitzak erabili arren ingeles hizkuntzaren ikaskuntza maila egoki bat lortzeko nahikoa ez dela ikusi da.

Kanpo frogen analisia eta galdetegiaren emaitzetatik abiatuz, Malerrekako eskola batean (Sunbilla) ingeles ikasgaiaren aurrera eramateko proposamen bat sortu da, Lehen Hezkuntzarako lehenengo mailarako hain zuzen ere. Proposamena sortu ahala, zein prozesu konplexua den ulertu dut. Azken finean ikasgela bateko ikasle jakin batzuen beharretara egokiturik sortu behar dira unitate edo proposamen didaktikoak. Gainera kasu

honetan ikasgaiaren ematen diren gabezia edo zailtasun batzuetara zuzenduta egiten da. Gabezia horiei aurre egiteko asmoz proposamenaren saio guztietan eredu antzeko modu bat jarraitzen da. Ingeles ikasgaiaren landu beharreko trebetasun edo gaitasun linguistikoak irakurmena (*reading*), idazmena (*writing*), entzumena (*listening*) eta ahozketasuna (*speaking*) izanik, ingelesez "*language skills*" bezala ezagutzen dira. Proposamen honetan jarraitu den eredu edo txantiloia ondokoa izan da, saio bakoitzean hizkuntzaren lau gaitasunak lantzeko jarduerak ezberdinak sortu dira. Bestetik, edozein ikasmaita izanik errutina moduko bat jarraitzea lagungarria da ikasleentzat baina batez ere Lehen Hezkuntza etapako lehen ikasmailatan, horregatik saio guztiak entzumena eta ahoskera lantzeko bideoekin hasten dira, Jolly Phonics metodoan erabiltzen diren fonemen bideoen bitartez. Saioari hasiera eman ondotik, beste trebetasunak lantzeko jarduerekin jarraitzen du. Proposamenean zehar jokoak tartekatzen dira, ikasleen interesa eta motibazioa pizteko helburuaz, beti ere ikasgaiaren aspektuak lantzen diren bitartean. Proposamena Lehen Hezkuntzako lehenengo mailarako sortu den arren, etapako azken mailetara proposamenaren egitura edo txantiloia berdina mantenduz ikasleen adin eta beharretara egokitu daiteke.

Azkenik, gizartean azkeneko urte honetan bizi dugun egoera kontuan izanik, COVID-19 birusa dela eta hainbat aspektutan eragina handia izan du, horietako bat hezkuntza alorra izanik. Horrek, eskola jarduerak guztiak bertan behera gelditzea suposatu du. Hezkuntzaren funtzionamendua eta antolaketaren erabateko aldaketa suposatu du, ikasle zein irakasle direnetan. Beraz, ezin izan dira ikasgela barruan inolako jarduerak edo ikerketarik aurrera eramanez eskola praktika garaian, ezta proposamena aurrera eramateko aukerarik izan.

Proposamen honen helburua ingeleseko hizkuntza gaitasuna hobetzeaz gain, ikasleek beste hizkuntzetan ere hobekuntzak egin behar dituzten ala ez ikustearena da. Hau da, proposamen hau aurrera eramanda ikasleen ingeles mailan aldaketarik ematen den aztertu beharko zen, aldaketarik eman ez gero, euskara zein gaztelania hizkuntzetan aldaketak egin beharko liriateke, azken finean hiru hizkuntzak komunikaturik daudela esan dezakegu, haien artean elkarmenpekotasun erlazioa dago eta.

Hala ere aipatu beharra dut azken ikasturte honek dituen bi praktika aldietan asko ikasi dudala eta batez ere aipamenean, ingeleseko maila guztietako ikasgeletan egoteko aukera izan nuen eta oso baliagarria izan zait lan hau egiteko.

CONCLUSIONES

Mediante este Trabajo de Fin de Grado, se han analizado las pruebas externas y resultados de los distintos idiomas que se realizan con el fin de conocer el nivel de inglés en la etapa de Educación Primaria, de las escuelas del Valle de Malerreka. Las pruebas externas son las facilitadas por el Gobierno de Navarra, del Departamento de Educación. Para ello, se ha creado un breve cuestionario dirigido a los profesores de inglés del grupo de escuelas de Malerreka con motivo de conocer las ideas y opiniones de los profesores.

Además del análisis de la prueba externa de inglés y los resultados de esta, el cuestionario realizado ha sido de gran ayuda, ya que sirve para conocer información del día a día en las sesiones de inglés, así como el interés y la actitud de los alumnos hacia el idioma y las dificultades que surgen en el aula.

En cuanto al idioma se refiere, está clara la importancia que recibe en la sociedad y también en el ámbito educativo, pero mediante este trabajo, he comprendido lo complejo que puede llegar a ser gestionar el idioma en las aulas de forma correcta. Sobre todo teniendo en cuenta que es un idioma que los alumnos no lo utilizan a diario y que por ello hay que adaptarlo a las necesidades educativas del alumnado.

Para llevar a cabo este Trabajo de Fin de Grado se ha prestado atención a investigaciones de diferentes autores expertos en el tema, así como la teoría de interdependencia de J. Cummins y diversas investigaciones realizadas por Jasone Cenoz. Además de teoría e investigaciones, en este trabajo se muestra una realidad del ámbito educativo (del Valle de Malerreka). Por medio de este trabajo se han podido conocer las diferentes situaciones y dificultades que se dan en la asignatura de inglés en las aulas del modelo D. Además de conocer la presencia del inglés en las aulas, se ha podido ver que el nivel de inglés obtenido en Educación Primaria no se desarrolla lo suficiente. Teniendo en cuenta el análisis de las pruebas externas y el cuestionario realizado, los profesores de inglés de las escuelas de Malerreka coinciden en que los alumnos deben trabajar más los diferentes aspectos o habilidades lingüísticas. A pesar de que los profesores utilizan diferentes materiales y recursos se ha podido ver que no es suficiente para lograr un buen nivel de inglés.

Partiendo desde los resultados obtenidos del análisis de las pruebas externas y el cuestionario, se ha creado una propuesta didáctica para llevar a cabo en la asignatura de inglés en una escuela de Malerreka (Sunbilla), concretamente para primero de Educación

Primaria. En el proceso de crear la propuesta, he comprendido lo complejo que es el proceso. Al fin y al cabo las unidades didácticas se crean teniendo en cuenta las necesidades educativas de una clase concreta. Además en este caso la propuesta ha sido creada teniendo en cuenta ciertas dificultades o deficiencias que se da en la asignatura. Para ello, se ha mantenido un mismo patrón en las diferentes sesiones de la propuesta. Teniendo en cuenta las habilidades lingüísticas del inglés, leer (*reading*), escribir (*writing*), escuchar (*listening*) y hablar (*speaking*) conocidas como "*language skills*" se ha seguido una misma estructura, se han creado diferentes actividades en las que abarcan las cuatro habilidades en cada sesión. Por otro lado, siendo otro curso de la etapa, el hecho de seguir una misma rutina o patrón en clase es de gran ayuda para los alumnos, sobre todo en los primeros cursos, por ello en la propuesta todas las sesiones comienzan con unos videos para trabajar la comprensión auditiva y la expresión oral mediante los videos de los fonemas del método Jolly Phonics. Una vez iniciada la clase, continúa con diferentes actividades con las que se trabajan las distintas habilidades lingüísticas. Durante la propuesta se utilizan juegos con el fin de motivar y despertar el interés de los alumnos. Aunque la propuesta haya sido creada para el primer curso de Educación Primaria, el patrón seguido en esta puede ser útil en cursos más avanzados, adaptando las actividades a la edad y necesidades educativas de los alumnos.

Por último hay que recordar que la situación que hemos vivido este último año debido al virus COVID-19 ha influido en diferentes aspectos, siendo la educación uno de ellos. Esto ha causado que toda actividad presencial educativa se cancele. Por lo tanto ha supuesto un gran cambio en cuanto al funcionamiento y organización de la educación se refiere tanto para profesorado como para el alumnado. Al no poder llevarse a cabo ningún tipo de actividad o investigación dentro del aula durante las prácticas, tampoco se ha podido desarrollar la propuesta en el aula.

Mejorar la capacidad lingüística del inglés es uno de los fines de la propuesta presentada, además de conocer si los alumnos necesitan mejoras en otros idiomas. Una vez llevada a cabo la propuesta habría que analizar si se da algún tipo de cambio en el nivel de Inglés, de no ser así habría que contemplar la idea de mejorar tanto la capacidad de Lengua Castellana como la del Euskara. Al fin y al cabo los tres idiomas en los que estudian están comunicados entre ellos, llamada interdependencia lingüística.

Aun así, debo decir que las dos prácticas escolares que se realizan en este último curso,

sobre todo la de la mención me han servido de gran ayuda para realizar este trabajo, ya que he tenido la oportunidad de poder estar en las sesiones de inglés de todos los cursos de Educación Primaria.

ERREFERENTZIAK

147/2016 FORU AGINDUA, abenduaren 30ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan diren Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzak ikasteko programen oinarrizko alderdiak arautzen dituen eta zenbait ikastetxeri haiek emateko baimena ematen diona.

18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, euskarari buruzkoa.

60/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumaz ezartzen duena.

8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko.

9/2017 Foru Legea, ekainaren 27koa, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk aldatzen dituena.

Baker, C. (2001). *Foundations of bilingual education and bilingualism*. England: Multilingual matters LTD

Arocena, E.; Cenoz, J.; Gorter, D. (2015). Teacher's beliefs in multilingual education in the Basque country and in Friesland. *Journal of Immersion and Content-Based Language Education*, 169-193.

Cenoz, J.; Valencia, J.F. (1995). El papel del bilingüismo en la adquisición de una lengua extranjera: El caso de aprendizaje del inglés en Gipuzkoa. *Infancia y Aprendizaje*, 127-138, (72).

Cummins, J. (1979). Linguistic interdependence and the educational development of bilingual children. *Review of educational research*, 222-251, 49 (2).

El Diario Vasco (2010). "Nuestro nivel de inglés es de los peores de la UE". Eskuragarri: <https://www.diariovasco.com/v/20100302/al-dia-local/nuestro-nivel-ingles-peores-20100302.html>

LOE 2006/2 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, hezkuntzari buruzkoa.

LOMCE 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko legea.

BOE, (295).

Mackey, W. F. (1970) *The description of bilingualism*. 554-584. The Hague: Mouton & Co.

Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2002). Marco común europeo de referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza, evaluación. Eskuragarri: https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/marco/cvc_mer.pdf

Montero, H. B. (2017). Aplicación de juegos didácticos como metodología de enseñanza: una revisión de la literatura, 75-92, 7 (1).

Nastat (2020). Encuesta Social y de Condiciones de Vida. *Ohar estatistikoa*. Eskuragarri: http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Economia+y+Hacienda/Organigrama/Estructura+Organica/Instituto+Estadistica/NotasPrensa/CondicionesdeVida.htm

Nafarroako Hezkuntza Departamentua (2012). Ebaluazio diagnostikoaren esparru teorikoa Lehen Hezkuntza. *Hezkuntza Ikuskaritzako Koadernoak*.

Nafarroako Hezkuntza Departamentua. Modelos lingüísticos. Eskuragarri: <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/modelos-linguisticos>

Peacock, M. (1997). *The effects of authentic materials on ELF learners* London: Oxford university press.

Salazar, L. (2006). Interdependencia lingüística, transferencia y enseñanza-aprendizaje de lenguas extranjeras. *Revista de Educación Laurus*, 45-72, 12 (Ext). Eskuragarri: <https://www.redalyc.org/pdf/761/76109904.pdf>

Vila, J. I. (2010). ¿Qué puede aportar la educación bilingüe a la educación lingüística del siglo XXI?. *Avances en supervisión educativa*, (13).

Weinreich, U. (1968). *Languages in contact: Findings and problems*. The Hague: Mouton & Co.


ERANSKINAK

Eranskinen aurkibidea:

- **I. Eranskina:** Etxeko animaliak eta animalia basatiak.
- **II. Eranskina:** Animalien irakurgaia.
- **III. Eranskina:** Irakurgaia lantzeko galderak.
- **IV. Eranskina:** Arte hezkuntzako irudiak.
- **V. Eranskina:** Animalien flashcard-en adibidea.
- **VI. Eranskina:** Bete hutsuneak jarduera.
- **VII. Eranskina:** Irakurri eta margotu eskatzen dena.
- **VIII. Eranskina:** Non dago katua?
- **IX. Eranskina:** Animalien bizilekuen irakurgaia.
- **X. Eranskina:** Elkartu animaliak bizilekuekin.
- **XI. Eranskina:** Hartz polarren irakurgaia.
- **XII. Eranskina:** Hartz polarren gorputz atalak.
- **XIII. Eranskina:** Errubrikak.

I. Eranskina: Etxeko animaliak eta animalia basatiak.

WILD AND FARM ANIMALS



Farm animals live at a house or a farm.

Wild animals live free, in the jungle, the forest or in the sea.





1. WRITE THE NAME OF THE ANIMAL IN THE CORRECT PLACE.

SHEEP - LION - ELEPHANT - COW - DOG - GIRAFFE - ELEPHANT - PIG

FARM ANIMALS

WILD ANIMALS

2. COLOR THE WILD ANIMALS.



II. Eranskina: Animalien irakurgaia.**MOLLY THE COW**

READING

My name is Molly, I'm a cow and I live in a farm with my family and other animals.

I like to eat grass. I also like playing with my friends. My best friend is a dog called Rod.

**ROD THE DOG**

I'm Rod the dog, I live in the farm with Molly the cow. My hair is brown, short and very soft.

I don't like the grass but I love eating meat. My best friend is a donkey called Rocky.

III. Eranskina: Irakurgaia lantzeko galderak.**1. CIRCLE THE CORRECT ANSWER**

1. Where do Molly and Rod live?

- a. In a farm
- b. In the jungle
- c. In a mountain

2. What does Molly like to do?

- a. Play with a ball
- b. Run in the grass
- c. Play with her friends

3. Who is Molly's best friend?

- a. Tom the donkey
- b. Emily the cat
- c. Rod the dog


4. Rod's hair color is _____.


2.FIND THE NAMES OF THE ANIMALS.


DOG – COW – MONKEY – TIGER – SHEEP - CAT

A	J	Z	F	D	L	G	S
M	O	N	K	E	Y	I	C
C	T	P	K	J	B	B	N
N	I	J	G	T	J	K	S
M	G	O	D	N	H	P	F
A	E	T	T	C	O	W	Y
D	R	K	S	H	E	E	P
N	T	A	C	E	F	W	N
W	Ñ	B	W	S	K	X	R


IV. Eranskina: Arte hezkuntzako irudiak.





V. Eranskina: Animalien flashcard-en adibidea.

COW



PIG

VI. Eranskina: Bete hutsuneak jarduera.

1. FILL THE GAPS WITH THE CORRECT WORD.


I'm a _____ . I have got a
_____ tail and the colour of my
hair is _____ .
My eyes colour is _____ .

I live in a _____ with other animals.
My ears are very _____ . And I have
got _____ legs to run in the grass.




VII. Eranskina: Irakurri eta margotu eskatzen dena.


1. READ THE SENTENCES AND DRAW THE ANIMALS.




Draw an orange spider



Draw a cat with pink ears



Draw a monkey with green eyes



Draw a yellow and blue tiger

VIII. Eranskina: Non dago katua?

Where is the cat?

1. FILL THE GAPS WITH THE PREPOSITIONS OF TIME:

ON-UNDER-IN-BEHIND-IN FRONT OF-BETWEEN-NEXT TO















IX. Eranskina: Animalien bizilekuen irakurra.**ANIMALS LIVE EVERYWHERE**

READING

Animals live all over the world, fish, shark or jellyfishes live in an aquatic ecosystem. These animals live in the sea.



Some animals live in the land, farm animals and a lot of wild animals for example.

Animals with wings live in the air, they fly all over the sky. Birds, bees and other insects live in the air.



X. Eranskina: Elkartu animaliak bizilekuekin.

1. CONNECT THE ANIMALS WITH THEIR HABITAT WITH A LINE.



WATER



AIR



LAND

FOX

DOLPHIN

MONKEY

JELLYFISH

GIRAFFE

FISH

BEE

ELEPHANT

SNAKE

SHARK

BIRD

XI. Eranskina: Hartz polarren irakurgaia.

POLAR BEAR FACTS

READING

❄ Winter is the coldest seasons of all.

❄ Some animals hibernate in winter,
but polar bears don't hibernate.

❄ Polar bears live in the Antarctic.

❄ They eat meat and some fish.

❄ Polar bears fur looks white, but it is transparent.


❄ Polar bears are very good swimmers.



XII. Eranskina: Hartz polarren gorputz atalen jarduera.

POLAR BEAR BODY PARTS

LEGS - TWO EARS - NOSE - EYES



XIII. Eranskina: Errubrikak.

Ebaluazio jarraituaren errubrika

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	BIKAIN	ONGI	NAHIKOA	GUTXIEGI
Parte hartzea	Ikasleak beti gelakideekin parte hartzen du, ekarpenak egiten ditu eta taldean lanean aritzen daki	Batzuetan gelakideekin parte hartzen du, ekarpen gutxi egiten ditu eta talde lanean aritzen daki	Gutxitan parte hartzen du gelakideekin	Ez du inolako parte hartzerik gelakideekin ez ekarpenik egiten
Lankidetzatza	Ikasleak talde lanean jarduten dutenean parte hartzen du, guztien ongizatea bermatuz	Talde lanean jarduten dutenean gehienetan parte hartzen du, beste taldekideak kontuan izaten ditu	Ez du ia talde lanean jarduten, ez ditu bere taldekideak kontuan izaten	Ez da saiatzen beste ikasleekin taldean lan egiten, ez ditu beste ikasleak kontuan izaten
Jarrera	Ikasgelan parte hartzen du, taldekideak zein materiala errespetatzen ditu eta gelakideak laguntzen ditu	Parte hartzen du eta batzuetan materiala eta gelakideak errespetatzen ditu	Oso gutxitan parte hartzen du, materiala ez du zaintzen eta gutxitan arreta jartzen du	Ez ditu gelakideak errespetatzen, materiala ez du zaintzen eta ez du arreta jartzen

Ikasleak aztertzeko errubrika

	BIKAIN	ONGI	NAHIKOA	GUTXIEGI
HIZTEGIA	Hiztegia modu egoki batez erabiltzen du, ikasitako hiztegia ulertzen du	Hiztegia gehienetan ongi erabiltzen du, hiztegia ulertzen du	Hiztegia ulertzen du, baina ez du ongi erabiltzen	Ez du hiztegia ulertzen, ez ditu ikasitako hitzak ikasgelan erabiltzen
GRAMATIKA	Ikasitako egitura gramatikalak ulertu eta modu egoki batez erabiltzen ditu ikasgelan	Ikasitako egitura gramatikalak orokorrean ongi erabiltzen ditu ikasgelan	Egitura gramatikalak ikasi ditu baina ez daki nola erabili ikasgelan	Ez ditu egitura gramatikalak ikasi, ez dakizki erabiltzen
AHOSKERA	Argi eta zuzen hitz egiten du, ahoskera zaindua eta garbia du	Hitz egitean ongi ahoskatzen du eta hitzak ulertzen dira	Ez du ahoskera zaintzen, batzuetan ez dira hitzak ulertzen	Ikaslearen ahoskera ulertzea zaila da
EDUKIAK	Lantzen diren edukiengan arreta jartzen du, ongi barneratzen ditu eta hauek azaltzeko gai da	Lantzen diren edukiak ulertu eta barneratzeko gai da	Lantzen diren edukiak ulertzen ditu baina ez da gai hauek barneratzeko	Lantzen diren edukiak ez ditu guztiz ulertzen eta beraz ez da gai hauek barneratzeko